


N-500009359

ZRY
3382

M. Lysheala

Jesusen Bihotz ezitia egizu
maitha zaitzadan gero eta gehiago
(300 Egunen indulientzia)



MISIONETAKO
ETA ERRETRERAKO
KANTIKAK



BAYONAN

L. LASSERRE BAITHAN IMPRIMATUA

—
1898

Imprimatur :

DIHARCE, vic. gen.

Zer egin behar den Misione aitzinean?

Jakiten den bezain laster noiz emana izanen den Misione saindua herri batean, guziek behar dute grazia handi lura gogoan erabili eta biho-tza zabaldu.

Zombatentzat ez du bizitzez kharbiatzea ekharri behar, zombatentzat ez du zerua ideki behar eternitatekotzat?

Beraz herriko presuna on eta kharsu guziek egingen dute othoitz eta ere dute komuniatuko Misioneak fru tu nasaiak ekhar d tzan. Familia guzietan erranen dute aratsian elgarrekin hamarreko bat chede beretarat.

Zer egin behar den Misioneko demboran?

(1) Misione hastian, emaiten badute Aita Misio-nestek eretreta bat haur berriki komuniatuentzat, hamalaur, hamabortz urthe iganak ez ditutenentzat, burhasoek igorriko dituzte beren haurrak artha handirekin, bai goizian bai aratsaldetan Elizarat, orhoituz adin hartan behar direla hartu oihudura onak. Bertzalde prediku handiez haur heiek guti baliatzen dira.

(2) Burhasoek eta nausiek behar dute artha handi bat hartu beren haur eta sehien elizarat igortzeko, egunian behin bederen, goiz edo arats. Baitezpadakoa da conseilu hau, ezen ez

dakigu zoin egun eta zoin prediku Jainkoak hautatu duen gure bihotzen hunkitzeko. Ez erran bizpahirur prediku aski direla entzutea. Hori liteke zuen buruen enganatzea eta Misionearen grazia galtzea, ostikatzea.

(3) Aratsetan ez da aski Elizarat jitea, prediku handia hasten deneko. Ez, jin behar da kantiken kantatzeko demboran eta manamenduen eta doctrinaren chehetasunen aditzeko, hekien ondotik. Ezen deusek ez du hala bihotza hunkitzen nola kantika eder baten aditzeak. Harrek du ardura prediku handi batek baino hobeki konbertitzen. Gero Misionean, behar dira, kontzientziako egin bideak ikhasi, eta chehetasun labur hetan maiz agertzen dira gordiak ziren hutsak, sugeak beroarekin agertzen diren bezala.

(4) Gogoan ibili behar dira predikuan aditu diren gauzak, aiphatu behar dire familian adichkideekin; othoitz egin behar da oraino gogor daudenezat, eta ahal bezenbat elizarat ekharrazi.

(5) Hastapenetik behar dira guziak predikue-tarat jin. Ezen orduan egiten dire egia handien gaineko predikuak. Heiek guziz dute konbertitzen, dio Izpiritu sainduak.

(6) Guziek behar dute egin bederen azken misionear geroztikako konfesioa. Hortakotz konfesioak behar dira hasi, lehen astia akhabatzen delarik.

Misione ondarrean zer egin behar den

Guziak behar dira sarthu beren herriko konfardietan, chedearekin hekiei fidel egoiteko.

Bainan konfardiez landa bada ordena bat, san Frantsesen Hirurgarren ordena : Aita Sainduaz guzien gainetik goretsia. Gutiziatzen du giritino guziak hamalau urthez goitikoak ordena hortan sar ditezen eta indulientzia aberatsenez dohatu du. — Hortan sartzeko behar dira utzi munduko bide galduak eta urguluzko ohidurak, bakean bizi guziekin, egun guziz erran ahalez hamabi *Gure Aita, Agur Maria* eta *Loria*, eta hilabetian behin komuniatu.

Hilabetian behin egiten da ere biltzar bat, eta gutiziatzeko liteke gizonek beren biltzar behetia izan dezaten; zerbeit hitz beren beharren edo herriko beharren gainean adi detzaten. Heiek izan behar dira aphezaren esku eta begiak bezela.

Bertzalde nechkatoak sarthuko dira kongregazionean.

Haurrek ere komuniatu ondoan eta guziz multthikoek behar lukete izan beren kongregazionea, beren banderarekin. Gure demboretan beriritu bezala dute Jesusen bihotz sakratuko konfardia eta establita, Aita Sainduen laudamen handienekin Frantsesez *Apostolat de la Prière*

deitzen duten konfardia. Horrek erran nahi du othoitzaren bdez apostolu izaitea. Guziak haur ttipienetarik hasirik, behar liteizke konfardian hortan sarthu.

Hemezortzi miliun girichtino badira ya hortan direnak. Irabaz ditaizke 170 indulientzia oso urthean.

Hirur grado baditu :

Lehenian aski da izena eman eta egun guzietz bere othoitz, lan, sofrikario guzien eskaintzea Jesusen Bihotz Sakratuari.

Bigarrenian erran behar da hamarreko bat billet batek seinalatzen duen arrosorioko michterio baten gainean meditatuz.

Hirugarrenian egin behar da komunione bat hilabete guzietz. Oi! zoin on liteken baldin hainitz tokitan bezala, igande batez mathiko eta gizonki guziek elgarrekin komuniatzen balute, eta emaztekiek bertze igande batez! Zer etsemplu ona!

Jesu Krichto gure Jaunak erekomendatu duen bezala, familiako membro guziek, baxhotchak bere aldian, behar lukete komunione saindua egin bederatzi hilabetez, hilabetearen lehen ortziralean harren bihotz sakratuaren konsolatzeko.

Nehor.ez da geldituko habituan bederen belchian sarthu gabe ez eta ere arrosorio pare bat gabe.

Misione ondoko chedeak

Nechkatoak beiratuko dira urguluzko aphainduretarik, dantza josteta eta bertze bekhatuzko okhasionetarik. Komuniatuko dute maiz ahalaz hamabortzetik, eta biziko dira chimpleki beren burasoekin.


Muthiko gazteak orhoituko di a ez ditekela, maiz komuniatuz baizik, bihotza atchi garbi. Beraz komuniatuko dute hilabethetik. 'gandetan ez dute bezperarik huts eginen, bethi etcherat bilduko dira ilhuneko; guziz eresp. toa, obediencia bokazionaren arabera, amodioa dute ekharriko beren burasoeri; abisatuko dituzte beren urhats premiatsuenez; beiratuko dira okasionetarik.

Burhasoak dira orhoituko atzartasun handi bat eta elsemplua dutela zor beren haur eta sehieri, eta hautarik norbeit erortzen bada bekhatuzko okasionetan, hekien zuhurtziaren eskasiaz, Jinkoak hekieri galdeginen diotela kontu, juyamenduan. Ez, ez ditezke burhasoak lide herisi hortarik eskapa. Hortan dute bere eginbidea. Aratsetan, familia guziak elgarrekin bation eginen ditu othoitzak.

Amek behar dituzte beren haurreri katichima eta othoitzak irakatsi. Orhoit ditezela hekien eskuetan dela haurren ethorkizuna.

Aitek behar dute beren Erlisioea ahalkerik

gabe sustengatu. Orhoitz ditezela guziz bozen
emaitea dela kontzientziako obligazionerik han-
diena. Hartarik heldu dira. Erlijioneko on eta
kalte guziak, lege on eta tsar guziak, Aita Sain-
duak eta aphezpikuek dioten bezela.



KANTIKAK KURUTZEAREN

OHORETAN (*)

ALEGRANTZIETAN

1

Alegrantzietan sargaiten egun
Adituz Jesusen gomitua.
Nahi du gogotik segi dezagun
Kristauen bandera sakratua.

Errepika.

Dezagun kanta Kurutzea,
Dezagun maita hur' adoratzea. (*Bis.*)

2

Kurutzeak du mundua libratu
Satanen gathibotasunetik;
Kurutzeak gaitu oro salbatu
Ifernuko su lamen erditik.

Dezagun, etc.

3

Kurutzearen etsaia mundua
Da dembora orotan izatu,
Jesusez hortik madarikatua
Izaitea hark du merezitu.

Dezagun, etc.

(*) Kantika hauk kantatuak izan dira Hazparneko Kalbarioa benedikatua izan den egunean.

4

Kurutzea maitatzen ez duenak
Ez du egiazko berthutea ;
Bere gorphutza guriki daukanak
Nekez duke barneko bakea.

Dezagun, etc.

5

Zeruko saindu guziek bezala,
Dugun beraz maita Kurutzea ;
Ez da salbamendurik baizik hala :
Hori da segur zorthea.

Dezagun, etc.

6

Eman dadila penitentziari
Bat bedera bere estatuan ;
Gogotik ditzala Jainko Jaunari
Bere penak ofrei lurrean.

Dezagun, etc.

7

Zeruko hautatuen seinalea,
Bethi danik, ongi orhoit gaiten,
Dela Kurutzearen ekhartzea :
Jesusek hori du erakasten.

Dezagun, etc.

8

Kurutzeak santifikatu gaitu
Mundu huntara jin gineneko ;
Bai, Kristauak harrek markatzen ditu
Gai eta on direnak zeruko.

Dezagun, etc.

9

Kalbario mendi saindu huntara.
Guziek dugu igan nahiko.
Bai, indulientzien irabaztera
Guziak gare lehiatuko.
Dezagun, etc.

10

Kristau onak, antsia handirekin,
Begiratzuz Jaunaren legea,
Kharsuki eta maiz dezagun egin
Orok Kurutzearen bidea.
Dezagun, etc.

JESUS ONAREN BIHOTZ

1

Zure besotan, oi Kurutzea,
Hil zaiku Jesus maitea
Haren kurutzefikatzailea } *bis.*
Ni naiz bekhatorea!

Errepika

Oi Kurutzea! oi Kurutzea! } *bis.*
Kurutze saindu maitea!

2

Jesu-Kristoren odolak zaitu
Kalbarioan gorritu :
Deusek gerostik munduan ez du } *bis.*
Zuk bezembat dirdiratu.
Oi Kurutzea, etc.

3

Bortzorduz hemen etsai gaichtoa

Zutaz izan zen ehoa.
Zure indarra da Jainkozkoa, } *bis.*
Deusek ezin hautsizkoa.
Oi Kurutzea, etc.

4

Etsaiarekin bethi guduan
Hemen gabilta munduan :
Pharätzen bazaizkigu buruan, } *bis.*
Oi gu nork bentzu orduan!
Oi Kurutzea, etc.

5

Jesu-Kristori zurekin baizen
Ez da nihor jarraikitzen.
Zure bidetik da bethi chuchen } *bis.*
Kristaua zerurat heltzen.
Oi Kurutzea, etc.

JESUS KURUTZERA

1

O Jesus Kurutzera
Ni gatik igan zarena!
Ene gaztigatzera
Maiz behartzen zaitudana!
Orai zure aldera
Bihurtzen naiz Jainko ona!

Errepika

Ah! orhoit zaite odola
Enetzat eman duzula!

2

Zure amodioak
Ez banau, Jauna, salbatzen,
Ene bihotz gaichtoak
Sutara nau kondentzen :
Zure jujamenduak
Borthitzki nau ikharatzen.
Ah! orhoit, etc.

3

Behar nuen bizia
Eman Kreatzaileari!
Eman diot guzia
Gaichtoki kreaturari.
Itsumendu handia!
Ifernua dut merezi.
Ah! orhoit, etc.

4

Deithu nauzu eztiki
Zure grazia sainduaz;
Egotu naiz lazoki,
Enganatua munduaz,
Orai, dolu dut finki
Ene zoramenduaz.
Ah! orhoit, etc.

5

Sobera tut maitatu
Munduko erhokeriak;
Berant tut ezagutu
Haren traidorekeriak.
Nahi naiz konbertitu.
Ematzu zure graziak.
Ah! orhoit, etc.

6

Hambat duzu pairatu
Ene gatik kurutzean!
Nola tuzket maitatu
Atseginak mundu pean.
Nahi naiz kambiatu;
Urriki dut bihotzean.
Ah! orhoit, etc.

KURUTZEAREN BIDEA

1

Kurutzearen bidea
Dugun egin, Kristau maiteak.
Salbamenduko bidea
Ideki dauku Kurutzeak. (*Bis.*)

Errepika

Kurutzea beraz bethi
Dezagun lauda goraki. } *bis.*

2

Beitz' izan laudarioak
Bethi Kurutzeak gu ganik.
Baikaitu Jainko-Semeak
Erosi, guretzat han lilik.
Kurutzea beraz...

3

Aldare haren gainean
Ofreitu da gure biktima
Bai, Jesusen odolean
Han garbitu gure arima.
Kurutzea beraz...

4

Kurutzeari itzatua
Jesus maiteak gure gatik
Garhaitu du ifernua,
Bizia emanik gogotik.

Kurutzea beraz...

5

Arbola baten fruituaz
Dohatzabeak ginen galdu.
Hunek ekharri daukunaz
Oro, nor bagare, salbatu.

Kurutzea beraz...

6

Zeruko zuzen guziak
Galduak ginituen, beraz!
Harako bide guziak
Ideki zaizku kurutzeaz.

Kurutzea beraz...

7

Ilhumberik lodienak
Orotarik gintuen hartu;
Bainan Jesus iguskiak
Oro gurutzetik argitu.

Kurutzea beraz...

8

Khelderra bezala belztu
Ginituen gu bekhatuak :
Bainan osoki churitu
Kurutzean ichuri odolak.

Kurutzea beraz...

9

Zor ezin pagatuzkoa,

Jainkoari ginioena
Kurutzean pagatua
Izan da zutaz, Jesus ona.
Kurutzea beraz...

10

Zor hura ezin pagatuz,
Behar nintzen erre ondikotz;
Jesusek han satisfatuz.
Egin nau dohatsu bethikotz.
Kurutzea beraz...

11

Kurutze salbagarria!
Nere esperantza da zutan,
Zutaz bai naiz erosia
Izan zerukotz mundu huntan.
Kurutzea beraz...

12

Oi Jesusen Bihotz khartsu,
Guretzat dena idekia,
Kurutzean guziz dugu
Ikhusten, oi! zure gaindia.
Kurutzea beraz...

13

Nola orai beraz, Jauna,
Ah! zun odolstatu ondoan,
Zu zinteke bad' emana
Gure gogotarik kampoan!
Kurutzea beraz...

14

Kurutzea laudatzean,
Ez gare mintzo haren zuraz;

Bainan Jesusek habean
Zuen amodio seguraz.
Kurutzeara beraz...

15

O bandera sakratua,
Zu zaituguno aitzinean,
Non baiditake gudua,
Bethi gaitezke bitorian.
Kurutzeara beraz...

STABAT

Jesus ona kurutzean
Itzaturik ikhustean
Ama zagon nigarrez.

Oinhazerik gaitzenean,
Lantzaz joa bihotzean,
Ethendu zen auhenez.

Zembat ahal zen samina
Ama saindu haren mina
Atsekabez bethea!

Han zagoen auhenetan,
Nigar eta hesturetan
Ikhustean Semea.

Hambateko oinhazean
Ama haren ikhustean,
Nork ez duke nigarririk?

Ama semea begiratu

Nor ez egon minez doluz
Nigarretan urthurik!

Ikhusi du azotatzen,
Gure gatik eztiratzen
Bere Seme ezta.

Ikhusi du hagorantzen,
Herioak akhabatzen,
Zeru lurrez utzia.

Amodio ithurria,
Emadazut min bizia
Pairatzeko zurekin.

Jainkoaren gogokotzat,
Amodioz Jesusentzat
Egizu erre nadin.

Sar dizazut bihotzean
Jesus onak kurutzean
Hartu duen zauria.

Zure seme zaurtuaren,
Ene gatik hartu penen
Emadazut erdia,

Hil artino haren minez,
Deithoratzen nigar zinez,
Nagon bethi zurekin.

Nahi nuke, oh! zurekin
Habearen itzalean
Nere egoitza egin.

Birjinarik ederrena,
Onhetsazu nere pena
Zurearekin baltsan.

Jaun onaren kurutzea,
Harek jasan oinlazea
Iduk bezat gogotan.

Egidazut kurutzeaz,
Semearen pairamenaz
Hazkartzeko grazia.

Hiltzen naizen orenko
Emadazut arimako
Jainkoaren gloria.

Jujamendu gogorretik
Ifernuko su garretik
Othoi beira nezazu.

Kristo, zure Ama onaz
Eta zure pairamenaz
Bitoria indazu.

MISIONETAKO KANTIKAK

MISIONEN ETHORTZEAZ

1

Misionen ethortzeaz
Jauna dela laudatu.
Helas! hauen eskasiaz
Hainitz dira damnatu.

Errepika.

Kristau leialak zatozte
Laster misionerat.
Jainkoak deitzen zaituzte
Harekin baketzerat.

2

Bozkarioetan sartu
Behar gare, Kristauak;
Zeruak zabaltzen ditu
Onthasun nasaienak.

Kristau.

3

Egun hautan, salbatzeko,
Egin ahal guziak.
Bizitzek khambiatzeko
Galda orok graziak.

Kristau.

4

Adi zak, bekhatorea,
Jainkoa zauk mintzatzen.

Bekhatuen dolorea
Phizteaz hau hertchatzen.
Kristau.

5

Bekhatu guzietarik
Behar haiz, bai, urrundu
Hekietan hagolarik.
Ez bahaiz nahi galdu.
Kristau.

6

Bekhatuaren uztea
Ez duk oraino aski,
Bihurtzen nori berea
Non ez dukan zuzenki.
Kristau.

7

Balin baduk norbaitekin
Etsaigorik, herrarik,
Baketurik elgarrekin
Maita zak bihotzetik.
Kristau.

8

Salbatu nahi bagira
Ez da bertze biderik.
Urrundu beharko gira
Urhats galkorretarik.
Kristau.

9

Ai hi! bekhatu gaichtoa
Hiretu nauk ondikotz.
Galtzaile ifernukoa
Habilkit sekulakotz.
Kristau.

ZATO, IZPIRITUA

Errepika.

Zato, Izpiritua,
Kreatzaile saindua.
Bisita zatzu hotzak
Othoi gure bihotzak.

1

Bethe zatzu graziez,
Zerutik egorriez,
Gure adimenduak
Zeronek formatuak.

2

Kontsolatzaile ona
Izendatzen zarena,
Dohain baliosena
Jaun zerukoarena.

3

Ithurburu bizia,
Amodio garbia,
Karitate khartsua,
Gantzukari saindua.

4

Zuk fidelen bihotzak
Berotu tutzu hotzak,
Hek argitu dohainez,
Izpirituarenez.

5

Egor azu saindua,
Othoi, Izpiritua,
Hola mundu guzia
Egin azu berria.

1

Zato, Izpiritua,
Zato, gu laguntzera;
Othoi, zato, jautszaite
Gure bihotzetara.

2

Jauna, bethe gaitzatzu
Egun zure dohainez,
Eta gaizatzu susta
Zure khar bizienez.

3

Kontsolatzaile gozo,
Deskantsu emailea,
Zu zaitugu penetan
Gure laguntzailea.

4

Zu zare, bethidanik,
Amodioa bera,
Osoki ekharria
Gu guzien aldera.

5

O! zembat flakezia
Diren gure barnetan

Bizi gare, ondikoz,
Bekhatuzko gathetan.

6

Egor diezaguzu
Zure argietarik
Eta gare ilkhiko
Gure ilhumbetarik.

7

Urrun zazu guganik
Gure etsai gaichtoa,
Bethi gure arimen
Osoki kontrakoa.

8

Bai, Jauna, urrun zazu
Satan, etsai dorphea;
Emaguzu bakea,
Ontasun hain maitea.

9

Aitarekin Semea
Dela bethi laudatu,
Izpiritu Saindua
Biekin ohoratu.

HELDU NAUTZU JESUS

1

Heldu nautzu Jesus Elizarat
Zure hitza gogotik entzuterat.
Jauts zakizkit ene argitzerat,
Amodioz (*bis*), bihotza sustatzerat.

2

Orai arte laidostatu zaitut!
Bainan biziz khanbiatu nahi dut.
Bekhatuak hastiatzen ditut
Jauna. zutaz (*bis*) gozatu nahi baitut.

IZPIRITU AMULTSUA

Errepika.

Izpiritu amultsua,
Grazien ithurburua,
Zato, hel zaizkigu,
Bero susta erre gaitzatzu.

1

Gure ahal, nahi guziak,
Jauna, zu gabe zer dire?
Azkar zatzu gure arimak,
Argi izpirituak, ilhunbetan gare. } *Bis.*
Izpiritu, etc.

2

Ifernuko suge amarrutsuak,
Mundu gaichto enganatzaileak
Herrestatzen gaituzte bere ganat,
Zato, zato, gure laguntzerat. (*Bis.*)
Izpiritu, etc.

ZATO, BEKHATOREA

Errepika.

Zato, bekhatorea, zato Elizarat,
Jaiako Jaunaren hitza funski aditzerat (*bis*).

1

Bekhatuen neurria bethe ez dezazun,
Adi zazu Jainkoak zer erraiten dautzun.
Ez egon bekhatuan ez egon luzaro
Damu izan ez dezazun alferretan gero.

2

Bekhatua ariman, lokhartzen bazare,
Menturaz ifernuan atzarriko zare.
Urtherik aski Jaunak zuri eman daitzu,
Eta denak bekhatuz zuk bethe ditutzu.

3

Misione saindu huntan ontzen ez bazare
Ifernuko su gaitzean geldituko zare.
Hau daiteke jaunaren askeneko deia;
Eta agertzen dautzu su salbatu nahia.

4

Athera bada, orai beretik khontuak,
Ez dezan izaria bethe bekhatuak.
Misioneko demboraz baliatu gabez,
Daude ja ifernuan hanitzak nigarrez!

5

Misione saindu huntaz ez baliatzera,
Menturaz heien lagun zu izanen zera!
Ay! bekhatore itsu, lazo ta galdua.
Zoin den urrikaria zure estatua!

Ez bazira zu orai funtski konbertitzen
Laster zar' ifernuan bethiko erretzen!
Holakorik zurekin, gerthatu ez dadin,
Oraitik behar duzu kofesio ona egin.

HAU DA GURE ITSUMENDUA

1

Hau da gure itsumendua.
Zerk gaitu bada zorutzen
Ahantzirik salbamendua.
Mundua dugu maithatzen.

2

Lurreko kargu ohoreak
Dire ephe gutitako;
Hango izaite, fagoreak
Zaizkit khearen pareko.

3

Arrosa, arantze gaberik
Ez ahal da nihon sortu;
Ez eta munduko plazerik
Khiretsik gabe gerthatu.

4

Ontasun galkor batzuentzat
Ez gaitu Jaunak kreatu;
Sainduki bizi direnentzat
Bertzerik du aldaratu.

5

Zerua da dohatsutasun
Justuari agindua,
Oi! zer zorion, zer ontasun,
Izaitea salbatua!

6

Bethi libro doloretarik
Daude Zeruan justuak :
Bethi bazter guzietarik
Loriaz inguratuak.

7

Nonbeit ongi maitagarria
Bide zare, ô Zerua!
Zu zare, sainduen herria,
Plazeren ithurburua.

8

O! egoitza zorionezko,
Guziz gozo, berezia;
Ala zure ganat heltzeko
Ongi baitut gutizia!

MUNDU ZORO

Errepika.

Mundu zoro, enganioz bethea,
Iduki nauk ondikotz gathetan;
Lausengari, enganakor trichtea,
Atzeman nauk, eta zembatetan!

1

Lore pean arantzeak gorderik
Sararazi nauk hire saretan,
Hire baithan sobera fidaturik
Erori nauk asko bekhatutan (*bis*).

2

Non zer bada neure adimendua,
Bizitzean plazer galkorretan?
Ikhusten dut ene zoramendua,
Eta nago auhen minenetan.

3

Itsumendu ezin ahantzizkoa!
Salbatzeko izan naiz kreatu;
Egiteko guzien gainekoa
Nola bada nik zaitut baztertu!

4

Zeru lurren, guzien Erregea
Salbatzea behar dut bilhatu;
Gidaritzat hartu harren legea,
Bekhatua urrikiz borratu.

AH! GIZONA

1

Ah! gizona, bizi haiz itsuiua?
Urrun zen haiz Jaunaren legetik;
Azken finak, uztekotz bekhatua,
Galdu behar ez dituk gogotik.

2

Hil behar haiz; zer duk seguragorik?
Hori diok zor herioari;
Eñhorriko zaik, hik ustegaberik;
Emok hori hire buruari.

3

Izanen haiz, hil eta, jujatua
Jainko Jaunaz; ordean justuki.
Zer zorigaitz, ez baduk bekhatua
Higindurik urrundu osoki?

4

Berehala juje mendekariak
Zabalduren dik suzko lezea:
Han beharko tuk tormenta guziak
Bethi jasan, ô zorte dorphea!

5

Bere besoak derauzkik zabaltzen:
Aita bat duk, nork erran zein ona?
Has hadi bihotzez haren maitatzen;
Hori duk hark galdetzen duena.

GIZONA

1

Gizona, non duk zuhurtzia
Zer? Ez dakik
Ez dela deusere bizia
Khe bat baizik?
Higuintzak bihotzez mundua
Orai danik;
Herioa duk hurbildua
Hire ganik.

2

Mundutar, plazer zoratutan
Hondatua.
Gauza bat bedi hiro baithan
Finkatua;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean;
Bihar beretik haitekela
Lur barnean.

3

Aberatsa, hire diruak
Hauk itsutzen,
Agintza faltsoez munduak
Hau zoratzen,
Ah! has hadi enganioaz
Ahalkatzen.
Bai eta funtski herioaz
Beldur hartzen.

4

Tratulari, intres gosea,
Deusek ére

Mundu huntan ezin aseá
Behinere,
Sarri phützu bat zaik emanen
Egoitzatzat;
Bi braza lur dituk izanen
Ontasuntzat.

5

Laboraria, alferretan
Haiz nekhatzen;
Maiz herioa duk betbetan
Gu ganatzen.
Hazilhan egiteko lanak
Tuk hiretzat,
Eta fruitu jin direnak
Premuentzat.

6

Mariñel, hambat hersturetan
Habilana,
Laster haiteke uhinetan
Atzermana;
Ur pean edo leihorretan
Haiz galduko;
Bizia zaik, muga denean,
Eskastuko.

7

Bat ez zaio herioari
Itzuliko;
Zorrozki zaio bakhotchari
Jazarriko;
Badaramatza Erregeak
Tronutarik,
Hain errechki nola pobreak
Zokhotarik.

ZER DIRE GURE EGUNAK

1

Zer dire gure egunak? Zer da gure bizia?
Itzalaren pare dire: Nun dugu zuhurtzia
Atsegin iragankorre bihotza largatzeaz?
Akabo da laster gutaz, orhoit gaiten hiltzeaz.

2

Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik;
Herioak, gure bortcha, garamatza mundutik;
Baratzetako loreak histen diren bezala,
Hola da gure bizia suntsiten berehala.

3

Oi! ez dugu zeren erran gazte, sendo garela,
Herioa gure ganik oraino urrun dela.
Sarri lur barnean daite bizi uste duena;
Nork daki noiz izanen den gure azken orena?

4

Herioak nihork ez du munduan urrikari;
Bakhotchari nahi dio, bere mugan, jazarri;
Chumeak eta handiak ditu bere-ganatzen,
Guziak, arte laburrez, herrautsetan ezartzen.

5

Zerentzat gintuzke beraz munduko fagoreak?
Lazter utzi behar diren ontasun, ohoreak?
Arbuia dezagun lurra, eta bilha zerua; [sua.
Han du bakharririk aurkhitzen bihotzak deskan-

6

Zer zorte erdiragarri bekhatuan hiltzea!
Zer zorigaitz! zer kalte min arimaren galtzea!
Begira gaitzatzu, Jauna, heriotze gaichtotik,
Eternitate guzian erretzen egoitetik.

7

ainko adoragarria, Aitarik hoberena,
Entzun zazu zure Seme, gure gatik hil dena;
Grazia eske dagotzu guretzat kurutzean:
Arren, fagora gaitzatzu gure heriotzean.

8

Ondikoz! merezi tugu gaztigu garratzenak.
Othoi, ahantz bekizkitzu, Jauna, gure hobenak.
Hel zakizkigu, Birjina, gure behar ordutan,
Guziz, ô Ama maitea, hiltzeko orenetan.

ZUEN HERIOTZEAZ

1

Zuen heriotzeaz funtski orhoitzerat,
Lehia zintezkete ongi bizitzerat;
Muga lazgarri hura datza hurbildua;
Halarik ez duzue higuintzen mundua.

2

Plazerak, ontasunak tutzue maitatzen,
Zuen gogo guzia hetan da baratzen;
Hek utzirik bertzentzat, gutien ustean,
Aurkhituren zarete lurraren barnean.

3

Ethorri bezain sarri hiltzeko orena,
Oren sainduak berak lazten dituenan,
Juje ikharagarri, ordean justuak
Nahiko tu punitu zuen bekhatuak.

4

Ez da zeren orduan laguntza bilhatu,
Hauzo, ahaidetarañ oihuz abiatu:

Ez du nihork izanen urrikalmendurik,
Ez zaitzue emanen kontsela mendurik.

5

Etsitu beharko da zeruko graziez,
Baita mundu huntako fagore guziez;
Zuen barkhamendua, nigar marrasketan,
Galdeginen duzue, bainan alferretan.

6

Dezagun beraz maita sainduen Saindua,
Eta higuin bihotzez bethikotz mundua.
Oi! ez bekigu ahantz hil behar garela,
Zeruko erresuma justuentzat dela.

ADITZEN DA TROMPETA

1

Aditzen da trompeta latzgarria,
Ethorri da Jaunaren eguna,
Egun trichte, egun lotsagarria,
Bai egun guzien handiena.

2

Ihurtzuri eta chimista pean
Lehenago Jauna mintzatu zen;
Bainan egun bere majestatean
Handiago guziciei agertzen.

3

Aspaldi lur bihurtu haragiak,
Erhauxtuak ziren hezurretan,
Osaturik, instant batez guziak
Phizten dire, chutituz batean.

4

Aingeru onek ematen dituzte,
Merezitu duten arabera,
Gaichtaginak eta onak bi parte
Jesus-Kristoren bi aldetara.

5

Hobendunak ezkerreko aldetik
Ikhusten du Juge hasarrea;
Eta onak Jaunaren eskuinetik
Bake osoaren Beithartea.

6

Errabian, ahalkez estaliak,
Gaichtaginak marrasketan daude;
Non zarete, lurrak eta mendiak?
Othoi, hemen suntsi gaitzatzue.

7

Ifernuak, erraiak idekirik,
Diotzote, irets baginitza!
Bainan egun Jaunaren begitarik
Ez diteke, ah! nihor geriza.

8

Orduraino gordeak egon diren
Krima beltzak eta itsusiak
Agertzen tu guzien bistan hemen,
O Jesus! zure argi biziak.

9

Ilhumbetan, bakharrik sekretuan
Egin krimak han agertzen dire;
Bihotzean eta izpirituan
Egia izatu direnak ere.

10

Zohazkidate, ah! madarikatuak!
Zohazkidate urrun ene ganik!
Sekulako surat kondenatuak,
Zohazte erretzerat orai danik.

11

Itzultzen da eskuineko alderat,
Arraiturik, Jaunaren Bisaia,
Ihurtzen du justuen bihotzerat
Oi! zer bozkariozko hibaia.

12

O! zer gozo aditzean : Zatozte,
Ene aitaz benedikatuak,
Har zazue ene lorian pharte :
Han dire zuen khorro, tronuak.

13

Ichtantean zerua da zabaltzen.
Ta justuak, arim' eta gorphutz,
Bozkarioz gaindi dire alchatzen,
Izaiteko han bethikotz urus.

14

O! egun segur bezain latzgarria!
Zein aldetan ikhusi behar nauk?
Bekhatoros hain lastimagarria!
Ikhusgarri hortaz bai hiri zauk!

NIGAR MARRASKETAN

1	Zertarat gaitutzen
Nigar marrasketan,	Gure libertateek!
Arima damnatuak	Atsegin zikhinak
Lez' eternaletan	Lakhet zitzaizkigun;
Bethikotz hondatuak	Su lama saminak
Daude; aditzagun	Orai irextzagun.
Heien boz sarkorrak;	5
Ongi har detzagun	Oihuz zagozkigun
Heien errenkurak.	Gure predikariak;
2	Ah! zeren ditugun
Jaunaren kolera	Tapatu beharriak,
Azpian gaitu hartu;	Zure justiziak,
Lurreko demborak	Jauna leze huntan,
Guintuen emplegatu	Gauzka ezarriak,
Bide galduetan;	Bethiko penetan.
Orai gare hemen	6
Ah! zori gaitzetan,	Zure kontra ginen
Su lame erretzen.	Mundutar lagunekin
3	Tropaka altchatzen,
Bai hemen khar pean,	Oi! zer furiarekin,
Zerurat gintezkenak,	Hox, mendeka zaite;
Ah! tormenta pean,	Bai justu da, Jauna;
Dohakabe garenak,	Guretzat ez daite
Gaude; eta hola	Hemen sobra pena.
Menderen mendetan	7
Egonen garela	Hunela galtzekotz,
Janik nigar hautan!	Oi zuek, aita amak,
4	Hunat egortzekotz
Zer ondorio duten	Helas! gure arimak,
Gure banitateke!	Zertako han harat

Bathaio saindutik
Ez egor thombarat
Bizien artetik.

8

Hik ni galdu nauk, hik,
Mundutar bolatua
Jaunak beharko dik
Doblatsu ifernua,
Hire punitzeko,
Eman eskandalez,
Hiri jasartzeko
Bere ahal doblez.

9

Hots bada Kristauak,
Hemen ikhusazue;
Egunekin gauak,
Han nahi ditutzue
Urtheak mendekin,
Deithora min hautan,

Han damnatuekin
Eraman lezetan?

10

Zuri dauzkitzugu
Behar eskerrak eman;
Zuri zor dautzugu,
Jauna, ez baikare han,
Ifernukoekin
Nigar marrasketan,
Baltsatuak hekin
Hekien penetan.

11

Orai hemien, Jauna,
Miserikordioski,
Ah! gorphutz hau uma
Nahi bezain garratzki;
Azurriatuak,
Munduan gareno,
Toleja gaitzatzu
Heriotzeraino.

KREATURA DAMNATUA

Galdea.

Kreatura damnatua,
Zerk hauen tormentatzen,
Zer den hire ifernua,
Hire penak zer diren
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea

Ezin erran dirot hitzez
Zembat dudan sofritzen;
Ene dolore borthitzez
Hasten banintz mintzatzan,
Flakoak, flakoak,
Litezke hitz guziak.

Galdea.

Ez badezakek esplika
Zembat dukan pairatzen,
Sentitzen dukan bezala
Erdizkache bederen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Ene zorigaitzak ez du
Helas! bertze neurrik
Jainko guziz botheretsu
Baten kolera baizik;
Bethikotz dohatsu
Izan nintekelarik.

Galdea

Hire pena zertan datza,
Zerk darozkik zilhatzen
Arima eta gorphutza?
Has hadi bad' agertzen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Gorphutzak eta arimak
Ditu bethi erretzen

Su mirakuilluzkoenak,
Bainan ez kontsumitzen;
Sua dugu hemen
Jaten eta edaten.

Galdea.

Su latzgarri horren kharrak
Zenbat iraun behar du?
Element horren indarrak
Noiz behardu jabaldu?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Ez diro deusek iraungi
Behin phiztu denean;
Iraun beharko du bethi,
Bethi indar berean,
Jaunaren kolerak
Buhatzen duen suak.

Galdea.

Zer lekhu den ifernua,
Zer dukhan hor ikhusten,
Nortaz haizen lagundua,
Nork duen hor manatzen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Ifernua da leze bat,
Satanen erresuma;
Jaunak aurrhiki du hunat
Gaitz guzien bilduma;
Mistro beltzik baizen
Ez da hemen ikhusten.

Galdea.

Hire pena guzietan
Zein da latzgarriena,
Gehienik hire baithan
Erdiratzen hauena?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Orhoitzean ene faltaz
Gabetua naizela
Bethikotz ene Jainkoaz,
Erhortu bat bezala
Dolorez, chagrinez
Jartzen naiz, haren minez.

Galdea.

Zertako haiz hi orhoitzen
Galdu dukan Jainkoaz?
Zergatik ez duk etsitzen
Haren amodioaz?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Higuintzera bortchatua
Naizen Jainkoa gana
Ez dakit zerk, hertchatua,
Istant oroz n
Bethi bereganik
Khasatzen nauelarik.

Galdea.

Nola dukan merezitu
Jainkoaren kolera,

Zeren gatik kondenatu
Hauen supliziora
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Dela madarikatua
Sorthu nintzen eguna,
Eta lehen bekhatua
Egin izan nuena :
Krima hark ondikotz;
Galdu nau sekulakotz.

Galdea.

Bekhatu mortal bakhar bat
Aski bada galtzeko,
Milak' egin tuztenentzat
Zer pena othe dago?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

Ihardestea.

Gaztiguen hedadura
Gaichtoek, leze huntan,
Beren krimen arabera
Behar dituzte jasan
Fin gabeko penak,
Ez ordean bardinak.

OI! ZOIN DEN ZORTHE TRISTEA

1

Oi! zoin den zorthe tristea,
Bekhatorea,

Oi! zoin den zorthe tristea,
Phentsazak maiz,
Bekhatuan bizitzea,
Salbatu nahi bahaiz,
Salbatu nahi bahaiz.

2

Jaun goikoaz gaitzetsia,
Haren etsaia,
Jaun goikoaz gaitzetsia,
Erreboltan,
Deramak hire bizia
Tristeki mundu huntan,
Tristeki mundu huntan.

3

Soseguaz gabetua.
Asaldatua,
Soseguaz gabetua
Haiz aurkhitzen;
Gathibo bilhakatua,
Zer estatuan haizen!
Zer estatuan haizen!

4

Hire gozokerietan,
Atseginetan,
Hire gozokerietan
Bihotzerat
Heldu zaik bethi betbetan.
Zerbait asaldatzerat.
Zerbait asaldatzerat.

5

Herioaz orhoitzean,
Guti ustean,
Herioaz orhoitzean
Zer laztura.
Ez da hire bihotzean
Hobenen eredura!
Hobenen eredura!

6

Ez balitz deus beldurtzeko :
Bertze munduko
Ez balitz deus beldurtzeko
Bainan Jaunak
Surat ditik aurthikiko
Kriman hiltzen direnak.
Kriman hiltzen direnak.

7

Phentsazak, dohakabea,
Hire ephea ;
Phentsazak, dohakabea.
Hurbil dela :
Luzaro bizi ustea
Egun hil ditekela.
Egun hil ditekela.

8

Bethi gerorat uztea
Konbertitzea,
Bethi gerorat uztea
Duk ondikotz,
Norbait salbatu gogoa.

Galtzea sekulakotz,
Galtzea sekulakotz.

9

Ez duk ez biharamunik,
Seguraturik ;
Has hadi has egun danik
Khanbiatzen,
Bekhatua kitaturik,
Barkhamendu galdatzen,
Barkhamendu galdatzen.

10

Salbatzaile amultsuak,
Hire Jainkoak,
Salbatzaile amultsuak
Hau bilhatzen ;
Egun darozkik besoak
Hain maiteki hedatzen,
Hain maiteki hedatzen.

11

Haren ontasun handiaz,
Haren graziaz
Ez bahaiz egun lehiaz
Baliatzen,
Laster bere justiziaz
Hasiko duk obratzen,
Hasiko duk obratzen.

12

Bihotz humiliatuak,
Doluz zaurthuak
Salbatzaile amultsuak

Onhetstentik ;
Eta heien bekhatuak
Ahanzten, barkhaturik,
Ahanzten, barkhaturik.

ITZUL HADI, ITZUL BEKHATOAREA

1

Itzul hadi itzul bekhatorea,
Jainko Jaunak deitzen hau arraiki,
Eztimak zak hitaz duen galdea
Eta emok bihotza osoki,
Eta emok bihotza osoki.

2

Bethiere, hire huts guzietan,
Egin daiat pietatez oihu ;
Ene gana deithu haut hambatetan ;
Bainan hago gogor eta mutu.
Bainan hago gogor eta mutu.

3

Zer da, errak, nik egin ezdudanik
Hi gaizkitik gibelarazteko ?
Hambat argi izan duk ene ganik :
Hauk guziak, hi zeruratzeko.
Hauk guziak, hi zeruratzeko.

4

Zeren gatik nauk bada ofentsatzen ?
Naski, guziz ona naizelakotz.
Hain gogorki zergatik nauk tratatzen ?
Ez nauk, maite, maite hautalakotz,
Ez nauk, maite, maite hautalakotz.

5

Bizitze hau ez duk amets bat baizik :
Hil behar haiz eta noiz ez dakik.
Ez daroat nik agindu gerorik,
Ez asterik, ez eta orenik.
Ez asterik, ez eta orenik.

Izanen haiz egun batez zeruan,
Edo dukek bethiko zorthea,
Tormentetan, supean, ifernuan;
Eta ez duk gogoan hiltzea!
Eta ez duk gogoan hiltzea!

OTHE DA DEUS NESESARIO DENIK

1

Othe da deus nesesario denik
Mundu huntan baizen salbatzea?
Ez ahal da halako zorionik
Nola zeruetara heltzea.

2

Mintza zaitte; Jaun ona, hemen nago
Ekharria zure entzutera :
Zure nahiak tut komplitu gogo,
Othoi, zato ene azkartzera!

3

Urrun beraz ere ganik mundua;
Ez, ez natzaik nihoiz yarraikiko;
Egin diat orai ene hautua,
Yainko Jauna bethi maitatzeco.

4

Ikhusten dut zerua zabaldua ;
Han behar naiz, egun batez, sarthu.
Arbuyatzen dut zinez ifernua,
Baitezpada nahi naiz salbatu.

ZURE KONTRA NAIZ ALTCHATU

1

Zure kontra naiz altchatu,
Zeru lurren Nausia ;
Zure kontra naiz harmatu ;
Hau da atrebenzia ?
Oi! nola, oi! nola
Mundu huntan kontsola !

2

Bathaioak Jainkoari
Ninduen kontsekratu !
Bainan laster etsaiari
Bekhatuak libratu.
Oi! nola, etc.

3

Aldarearen oinetan
Egin tudan botuak
Ene hobenez, miletan,
Dire ostikatuak.
Oi! nola, etc.

4

Zer ez duzu, zuk, enetzat
Egin, Jesus maitea !
Noiz izanen naiz zuretzat

Ezagutzaz bethea!

Oi! nola, etc.

5

Damuz, urrikiz zaurtua,

Heldu naiz zure gana,

Izan bedi borratua

Bizitze iragana.

Jaun ona, Jaun ona,

Ah! ez ni abandona.

6

Ene arima gaichoaz

Izan urrikalmendu :

Ene bizitze gaichtoaz

Oi! othoi, barkhamendu.

Jaun ona, etc.

7

Zin zinez naiz gambiatzen,

Bai, memento beretik :

Zuretzat naiz deklaritzen!

Bihotzaren erditik.

Jaun ona, etc.

NOLA KHAUSI DESKANTSURIK

1

Nola khausi deskantsurik

Arima obendun batean

Jauna atsegin guzietan

Zu gabe ez da gozorik.

Ah! munduaz lilluratua,

Utzi zaitut, aita ona

Ustez khausi zoriona,
Zorigaitzez naiz lehertua *(bis)*.

2

Hire gaztetasun ederra
Erraiten zarotan munduak,
Zoroki penetan daramak
Gozatu gabe plazera,
Munduak, helas! arrantzeak
Zituen arrosa pean,
Jauna! arrantzen azpian,
Zuk ditutzu eman loreok *(bis)*.

3

Mundu zoro gaichtoarentzat,
Oi dohakabea naizena!
Egin ditudanak, o Jauna!
Egin banitu zuretzat!
Bethi griñaz tormentatua
Plazer galkorren ondotik
Ibili naiz gazte danik!
Orai ongi naiz punitua! *(bis)*.

4

Bertute maithagarria!
Uztarri hain gozoa dena
Plazera berekin duena
Nork daut niri itzuliko?
Urrundu gabe krimetarik
Uste nuen ongi izan!
Ez dela, ahantzirikan,
Impioarentzat bakerik *(bis)*.

5

Ene krimen leze zolatik
Oi! Jauna, oihuz hari nautzu!
Ene auhenak entzun zatzu,
Ume bat urrikaldurik!
Haur esker gabe bat naizela
Aithor dautzut Aita ona!
Ahantziz ene hobena,
Orhoit zaite, aita zarcla! (*bis*).

6

Zu ezagutu mementotik
Egin dautzut laido bat beltza!
Chahutu dut ene primantza,
Zure ganik urrundirik!
Seme bezala barkhamendu
Nola galda, zuri, Aita!
Ah! zerbitzari bezala
Othoi errezebi nezazu (*bis*).

7

Bet-betan, hitz hauk tut aditu :
Alegera bedi zerua!
Ene haurra nuen galdua!
Huna non dudan khausitu!
Amodioaz sustaturik,
Huna, heldu Aita ona!
Lehiatzen da niganat
Bere besoak zabaldurik (*bis*).

ALA NI BAINAIZ DOHAKABEA

1

Ala ni bainaiz dohakabea,
Jainkoaren ofentsatzeaz;
Satan gidari hartzeaz!
Ene zorthearen tristea!
Satan gidari hartzeaz!
Gisa hortan zerua galtzeaz!

2

Ez dut ez galdu choilki zerua,
Eta Ifernua merezitu,
Neure Yainkoa dut galdu,
Neure salbatzaile amultsua.
Neure Jainkoa dut galdu,
Haren kontra naizenean altchatu.

3

Orai dut, orai, ezagutzen
Ene gaizkien malezia;
O! Jainko maitagarria,
Guziak orai tut higuintzen;
O! Jainko maitagarria,
Bihotzetik indazu urrikia.

4

Orai, Jauna, nork emanen daizko
Ene adimenduari indarrak,
Ene beguier nigarrak,
Ene bihotzari khar asko,
Ene begier nigarrak?
Hor litezke, hor ene plazerak.

Ez zaitut berriz ofentsatuko
 Sekulan, ô! Jainko maitea;
 Miletan lehen hiltzea,
 Bethi zu zaitut maitatuko;
 Miletan lehen hiltzea,
 Ezenez zu berriz galtzea.

AH! MUNDU ENGANAGARRIA

1	Oi, Jauna, zer ikhusgar-
Ah! mundu enganagar-	[ri!
	[ria, Ene zorigaitz handitan,
Jakin banauk berria!	Nago Satanen gathetan.
Hire agintza faltsoak	4
Zein diren ondikozkoak,	Hain churi nola elhurra,
Ah! oraidiat ikhusten;	Hain eder nola izarra
Ikhusteaz nauk hiratzen	Nuen arima gaichoa.
Ikhusteaz nauk hiratzen	Helas! hau da gambioa!
2	Kheldarra baino beltza-
Hire lausengu ederrez,	[go
Hire axegin galkhorrez,	Bakhatuz egina nago.
Oi hau da bada lastima!	5
Zertara dudan arima!	Zeruan gehiagorik
Huna non dudan galdua	Enetzat ez da zuzenik,
Bekhatutan hondatua.	Non ez ditudan higuin-
3	[tzen!
Nor darotzudan hautatu!	Hoben guziak borra-
Nor dudan nausitzat har-	[tzen,
	[tu! Penitentzia eginez
Ukho eginikan zuri,	Heiagoretan, nigarrez.

6	Ordu onean etcherat!
Alki sairduko oihuez,	Aitaren besoetarat
Predikarien erranez	Itzuli baitzen suharki,
Zu ganat, Jauna, dei-	Aitak hartu hur'arraiki!
[thua,	9
Amultsuki hertchatua;	Nork egundaino besta-
Heda besoa zerutik,	[rik
Heldu natzaitzu gogo-	Ikhusi hunelakorik!
[tik.	Besoz beso besarketan,
7	Egonikan nigarretan,
Ni naizen bezalakorik	Aitak Semea aldean
Nork ikhusi prodigorik?	Emana mahain onean.
Hark primantza lurre-	10
[koa,	Animo, bekhatoreak,
Nik primantza zerukoa	Zeruko Aita gureak,
Biek ditugu chahutu;	Osoki kombertiturik.
Ni gaichtoago izatu.	Bekhatuak barkhatu-
8	[rik,
Haur prodigoa behar-	Gaitu haur maiten bal-
[rez,	[sarat
Hurbil hila zen gosetez:	Hartuco bere alderat.

EZ DA MUNDU HUNTAN

1	Halere bethi
Ez da mundu huntan,	Edireiten
Ez hunen agintzetan	Ditu gizonak,
Behinere aurkhitzen	Fidatu nahi zaizkonak.
Zorion falxorik baizen.	2
Bethi da gezurti	Lore eta liliak
Hatzematen,	Nola tu iguzkiak

Goiz-aldean zabaltzen.
Arrats berean ihartzen;
Hala da gizona
Gambiatzen,
Haren adina
Da suntsitzen :
Sortu deneko
Han da arrasta hiltze-
3 [ko.
Mundutar arinek,
Ez gazte libertinek
Ez darotet agintzen
Axegingo zorik baizen;
Bainan pulumpatu
Banaiz hetan,
Ez dut aurkhitu
Guzietan,
Deus funxezkorik,
Deus, axekabez bertze-
4 [rik.
Hil behar gizonak
Alfer tu ontasunak,
Diru nekhez bilduak,
Urrhe eta zilhar mul-
[soak;
Balitz nihoren
Behar gabe,
Mundu beraren
Balitz yabe,
Hil eta zaio
Khutchacha choil bat gel-
[dituko.

5
Gizon aiphatuak,
Handi ohoratuak,
Zuen titulu gorek.
Ez eta zuen ohorek,
Ez dute hiltzetik
Begiratzen,
Nihor hobitik
Gibelatzen;
Hari itzultzeko,
Handi sortzea ez da as-
6 [ko.
Gaur dohatsu dena,
Urhea dariona,
Inguratua pobrez,
Haren amoina behar-
[rez,
Biharkotz daitেকে
Eroria,
Baieta eske
Ethorria
Bertzen atherat,
Amoinaren galdetze-
7 [rat.
Atzo gaichtagina
Ikhusi dut igana
Zedro berez gorago
Hurren hedoiëtaraino;
Ordean iragan
Naizeneko,
Nihor ez zen han,
Gehiago;

Izan zen ere
Ez zen seinale batere.

8

Zembat Alexandrek,
Zembat bertze Zezarek
Bere harmen indarrez,
Bere garhaiti ederrez,
Ez dute leihorra
Mintzarazi,
Ixasoa bera
Emarazi?
Eta azkeneko
Harrak dituzte ondoko.

9

Gizon yakinxunak,
Eta eskolatuenak
Zer du bada probetchu,
Duelakotz izpiritu?
Ez badu yustuen
Sinhextea,
Eta sainduen
Berthutea,
Deusik ez zaio
Zerukotz baliatuko.

10

Gizonen zorthea
Eta heien ephea
Jaunak bakharririk ditu
Bere eskutan gelditu :
Berak du ozpina
Phitz-arazten,
Eta gizona

Du herrausten
Har bat bezala,
Guti gogoan duela.

11

Ez du ez proberik,
Ez aitoren-semerik
Herioak berechten.
Urrikariz guphidesten :
Laster da lurrera
Jautsi behar;
Harren baltsara
Gaurtik bihar
Dire guziak.
Chumeak eta handiak.

12

Ez du beraz zeren,
Gazteak, gorphutzaren
Ari mainaz ekhartzen,
Eta ederki aphaintzen :
Noiz ere baithoa
Ilkhitzera,
Axegin bilha
Mundu-pera,
Dukhe bethea
Bere egunen ephea.

13

Gure funx-gabea,
Gure dohakabea!
Uste badugu izan
Dohatsu behere huntan:
Zeruan da batzen
Zoriona

Deusek gutitzen
Ez duena;

Jainkoa deno.
Bethi izanen dena oso.

ZEREN BILHA ZABILTZA

1

Zeren bilha zabilta,
Andre Madalena?
Zerk hola zaramatza
Desertua barna?

2

Jauna galduz geroztik
Ez dut plazerikan;
Gauza guziak ditut
Higuin mundu huntan.

3

Zer iduriko da
Zuk diozun Jauna?
Indazu zerbeit marka,
Ene Andre ona.

4

Hura da Jesus ona,
Zeru lurren Jauna,
Jainko-Gizon egina,
Eta ene bihotza.

5

Kurutzefikaturik,
Ez duzu aditu?
Juduek nola zuten
Sepulturan sarthu?

6

Neronek ikhusi dut
Amaren aldean,
Ene gantikan hila
Kurutze batean.

7

Zer esperantza duzu
Beraz haren ganik,
Infame baten gisa
Hil denaz geroztik?

8

Oi! ene Jaungoikoa;
Zeru lurren Jauna,
Mundutik beira nazu,
Ez nazan engana.

9

Oi! Andre Madalena,
Ez zaitela trompa;
Oraino harezazu
Lehenako pompa.

10

Hire pompa lizunak
Sobra segiturik,
Ongi niagok orai
Urrikiz betherik.

11

Gurutzeko penetan
Gambiatzen nauzu;
Ene plazerak hola
Mespreatzen tutzu.

12

Gurutzean tut orai
Ene atseginak,
Jaunak hartuz geroztik
Han, ni gatik penak.

13

Utzazu kurutzea,
Zato enekien;
Desertuan ez duzu
Jauna kausituren.

14

Nigar eginen diat
Hik eragin faltaz;
Menturaz kausituren
Jauna bide huntaz.

15

Zeruetara juan zen,
Ez zare orhoitzen?
Aitaren eskuinetik
Ez dela urruntzen.

16

Zein haizen gezurtia
Hor duk erakusten;
Orai huen infame
Bat zela erraiten.

17

Nigarrak behar dire,
Badakit, horrentzat;
Ordean askiko da
Hiltzean ihintz bat.

18

Dembora sobra diat
Hirekien galtzen;
Banioak bortura;
Ez duk mintza zeren.

19

Oi! Andre Madalena,
Hitz bat adizazu;
Bakharrik ez, e z zohaz
Ni galduko nauzu.

20

Adios sekulakotz,
Mundu gezurtia;
Nitan agertuko duk
Hire tromperia.

21

Non zarete, Bortuko
Ihize tristeak?
Othoi emadatzue
Zuen hasperenak

22

Nahi dut orai berian
Has ditzen nigarrak,
Garbi detzadan ongi
Egin tudan hutsak.

O Jesus orai danik, Zu ikhus arteraino,
Hau da azken hitza, Hemen dut egoitza.

HUNA JAUNA ARDI BAT

1

Huna, Jauna, ardi bat galtzen zena,
Ez bazin du izan urrikari;
Bainan orai zure eztitasuna,
Agertzen da nere arimari.

Errepika

Zure ganat, oi ene Artzain ona,
Graziak nau egun erakharri (*bis*).

2

Mundu pean, ondikoz! nintzen galtzen.
Eta bizi nintzen alegera;
Bainan non da, oi! Jauna, zutan baizen
Egiazko bihotzen plazera?

3

Ikhusten tut ene erhokeriak;
Hainitz aldiz zaitut ofenxatu
Barkha zatzu ene hoben guziak;
Urrikiaz nahi tut borratu.

4

Hirritatu dut maiz zure kolera,
Zure kontra altchatzen nintzela.
Nola atrebi zu ene Aita deitzera,
Erraitera zure ume naizela?

5

Helas! Jainko guziz ona zarena,
Berant zaitut, berant ezagutu;
Berant zaitut, gauza guzien Jauna,
Mundu huntan egiaz maitatu.

6

Zure ganik ez penek, ez plazerek
Ni ez naute nihoiz urrunduren;
Ez hiltzeko herstura handienek
Zu laudatzetik gibelaturen.

UTZIZ GEROZ BEKHATUA

1

Utziz geroz bekhatua,
Bertze bat naiz aurkhitzen;
Ene barnea boztua
Betbetan dut sentitzen.
Oi! hau da alegrantzia!
Bakerik gozoenak
Bethe daut bihotz guzia,
Khendurik hango penak.

2

Soseguaz gabetua,
Nahasi bat bezala
Bizi nintzen zoratua,
Neronek dakit nola,
Zembatenaz plazeretan
Bainintzen phulumpatzen,
Hambatenaz arantzetan
Barnago nintzen sartzen.

3

Maiz ene barneko penez
Nintzen tormentatua,
Halaber ene hobenez
Arras ahalkatua.
Zer bihotzmin! zer borroka!
Zer ez nuen pairatzen,
Nahi guziez ithoka
Nintzenean gozaten!

4

Phoroskatu bezain sarri
Etsaiaren gatheak,
Zoriona daut ekharri
Berekin berthuteak,
Deskantsuz-gaindi egina,
Bizi naiz lorietan;
Oi! nolako atsegina
Den orai ene baithan!

5

Izan bedi kantatua
Jaunaren ontasuna,
Guzietan laudatua
Haren zuzentasuna.
Aski da konbertitzea,
Harekin baketzeko,
Haren gana bihurtzea,
Dohatsu bizitzeko.

BEKHATOROSAREN CHEDE ONAK

1

Choriak, zuen ohantzetan,
Lauda ezazue Jauna;

Aipha haren ontasuna
Inguru guzietan.

2

Ez bedi entzun bazterretan
Zuen, musikarik baizik ;
Jaun onaren ohoretan
Ez bara kantatzetik.

3

Arditchoak, bazka zaitezte ;
Ez dut zuen zoriona :
Goiz arrats, ari zarete
Laudatzen Artzain ona.

4

Zuek, haize maitagarriak,
Harrabotsik eztienez,
Munduan egin ahalez,
Emotzue graziak.

5

Phausurik gabe, itsasoa
Orroaz borthizki dago ;
Bainan ez du gutiago
Ohoratzen Jainkoa.

6

Ni baino leialago zare,
Urzo tortoila gaichoa ;
Laudatzen duzu Jainkoa
Egun oroz, zuk ere.

7

Nik behar nuen gehienik
Jainko Jauna ohoratu ;
Eta ni naiz gutienik,
Hartarat lehiatu.

8

Ez naiz oraino abiatu
Jaun goikoaren maitatzen,
Eta haren ofentsatzen
Urtheak tut pasatu.

9

Ordu dut, ordu ilkhitzeko
Etsaiaren gathetarik,
Bide onean sartzeko,
Bekhatuak utzirik.

10

Huna beraz non heldu naizen.
Jauna, urrikiz betherik;
Sekulan ez dut zu baizen
Maitaturen bertzerik.

11

Badakit hobendun naizela :
Merechi dut hainitz pena;
Orhoit zaite zu zarela
Aitarik hoberena.

AZKENECOTZ

1

Azkenecotz, zure gana, Jesus, ene bizia
Amodioak dakharke ene bihotz guzia;
Ez dut nehon sosegurik, zu gozatu beharrez;
Ene baitharik ba-noha, zu maithatu plazerez.
Othoi bada, ez hiltzeko, Jesus ene bizia,
Zu bethi maitha zaitzadan egidazu grazia.

2

Ez dakusat oren hura, ene ganik ilkhirik.
Zurekin batnezakena, gorphutzaz gabeturik :
Ene desirek balute zure besoen ahala,
Hegaldaka nindohake zu gana berehala.
Othoi, bada, etc.

3

Hil beldurrak gehienak hiltzeraino dakharzke,
Eta ni nahiak ere hil-araz ez natzake;
Hekien beldur guzia da galtzea bizia,
Eta ni, bizi beharrez, nabila hil nahia.
Othoi, bada, etc.

4

Hilik baizen ezin bizi, hau da bada zorthea!
Et'oraino bizi behar bortchaz, ô dolorea!
Ezin hilak ene baithan ala baitu luzatzen!
O! heriotze maitea, zerk hau horla berantzen!
Othoi, bada, etc.

5

Amodioak ez badu ene baithan indarrik,
Deloreari emozu egin dezan baxharrik.
Ene ganik zure gana nathorrentzat zuzenki,
Ene hatsaz gabeturik, zurekin nadin bizi.
Othoi, bada, etc.

6

En'arima gorphutz hunek gathibo dadukala!
Zurekin bat izaitetik gibela netzakela!
Ez, ez da zeren; nolazpait nik zurekin behar dut:
Hunekin edo bertzela, nik zu beharko zaitut,
Othoi, bada, etc.

7

Ber' urhatsa ez darama erbi pertsegituak,

Hain laster chirripetarat orkhaitz egarrituak,
Nola orai sustaturik zeruko khar biziak,
Bainarama mundu petik zu ganako lehiak,
Othoi, bada, etc.

BIZIO MEDITENTSIAZ

1

Bizio bat orotarat ondikotz hedatua,
Arimen galarazteko Satanek asmatua
Hemen baltsan behar dugu lehiaz atakatu,
Kristauen bihotzetarik bethikotz desterratu.

2

Hura da gure mihiaz gaizki baliatzea,
Bethi zerbeit erraiteko berzentzat aurkhitzea;
Hura da medisentzia; lazten nau aiphamenak
Nork kompreni, nork esplika segida dakharz-
[kenak?

3

Nor da haren gerizean eman daitekeienik?
Zein da bada zerbeit gisaz kolpatzen ez duenik?
Haren lantza kolpe minak nork ez ditu frogatzen?
Haren phozoin kaltekorra non ez othe da sartzen?

4

Nohan huna, nohan hara, nohan guzietara,
Mihiak ditut kausitzen plegatuak gaizkira:
Batere banaiz trikatzen munduko solasetan,
Bethi zerbeit dut entzuten lagunaren kaltetan.

5

Medisentaren mihian ez da zeren khondatu,
Haren baithan fida dena laster daite trompatu,
Suge bat da lore-pean gorderik bizi dena,
Noiz edo noiz, nor edo nor ausikitzen duena.

6

Aditzerat medisenta, berak ez du faltarik.
Inozentzia bera da alde guzietarik ;
Lasto bat ikhusiren du bertzeren begietan,
Eta ernai lodiena behinere beretan.

7

Ez du proximo laguna berehala larrutzen,
Hasteak ederrak ditu, badauki lausengatzen ;
Heldu da gero *bainan* bat; hitz hunen maleziak
Izurritzatzen ohi tu laudorio guziak.

8

Hik dituk, medisentzia, hauzoak asaldatzen,
Adiskide, ahaidetan hotztasunak ezartzen ;
Hedatzen duk nahasdura gure bihotzetara,
Herri, hiri, erresuma, bazter guzietara.

9

Zer ethorri zare bada, karitate maitea,
Dohain eder, preziatu, plazer osoz bethea?
Zer bilhakatu da bada zutaz eman manua?
Oinen azpian dabilu; oi! hau zoramendua!

OI! ZEIN DIREN DOHATSUAK

1

Oi! zein diren dohatsuak
Bekhatutik urrunduak,
Berthutez berreginduak

Bizi direnak!

Salbatzea gatik,

Jesus bihotzetik,

Guzien gainetik,

Maite dutenak.

2

Zer erran garbitasunaz,
Hambat maitatu duzunaz,
Hain guti maitatzen denaz
Dembora hautan?
Berthute maitea,
Birjinen lorea!
Bed' izan gurea
Menden mendetan.

3

Zer du arima khartsuak,
Bere Jainkoaz hartuak,
Munduaz desgutatuak,
Zer du egiten)
Atzartasunari,
Othoitz usuari,
Mahain sainduari
Da jarraikitzen.

KRISTAU GAZTE MAITEAK

1

Kristau gazte maiteak, zuretzat naiz mintzo
Adi zazu gogotik zembait solas gozo;
Zerurako bidea zaitzu irakhasten;
Eman zaite gogotik zu haren ikhasten.

2

Goiz danik behar duzu maithatu Jainkoa
Nahi baduzu izan bethiko gozoa.
Gazte gaichtoak dire gehienak galtzen;
Aldiz gazte prestuak zeruaz gozatzen.

3

Demboren egilea bide da Jainkoa,
Adin guzien ere jabe-egiazkoa ;
Hala gare harenak gaztetasunean,
Nola ezindu eta zahar garenean.

4

Hortik badakusagu gur' eginbidea,
Iduki behar dugun bizitze moldea :
Jainkoa behar dugu orok zerbitzatzu,
Haren lege saindua bethi begiratu.

5

Nola bada, gaztea, haiz errebelatzen,
Jaunaren zerbitzutik zerk hau aldaratzen ?
Debrua duk hautatzen nausitzat, zoroa !
Utzirik hire Jabe zuzen bidezkoa !

6

Biziaren lorea da gaztetasuna,
Adin guzietan den prezagarriena :
Gaizkira makhúr bedi, ez daki non bara ;
Ongira itzul bedi, ah ! zein den suharra !

7

Gasteak dire zalhu ; bizi eta khartsu ;
Zaharrak berriz gogor, uzkur, nagi, pisu.
Hek uda didurite bere-egun luzetan ;
Hauk aldiz negu latza izotz, hormatetan.

8

Etsaiarentzat bada izanen othe duk
Hire adin hautua, gaztea, erraguk ?
Jainkoarentzat daukak, ah ! bihotz gogorra,
Bekhatutan iragan egunen ondorra.

9

Gaztea, ibil hadi oraitik ~~prestaki~~,
Mugarik ez denean ez dukan urriki;
Urrun lagun airatu mundutarretarik,
Nahi ez baduk hartu hekien kutsurik.

10

Onhets ezak etchea, bizitze gordea;
Ichiltasuna, lana, hire eginbidea :
Jarraiki othoitzari, irakurtzeari
Irakuriak gogoan erabiltzeari.

11

Sakramenduetara hurbilduz arthoski,
Hire chede onetan egonen haiz tinki,
Hetan zaizkik emanen dohain bereziak,
Errechki garrhaitzeko hire etsai guziak,

12

Bekhatua delakotz gaitz guzien gaitza,
Harentzat izan-ezak higuintzen higuintza :
Hartarik bethiere begira arthoski;
Bizi haizeno, hortan berma hadi finki.

13

Zuk, ô Jesus maitea, gure Jabe ona,
Jende gazte prestuak hain maite tutzuna,
Egiazko prestuak bethi zatzu lagun,
Bere chede onetarik ez daitezen urrun.

14

Gazte errebelak ere tutzu urrikari,
Heienizat-ere duzu odola ichuri;
Suntsi etzatzu, Jauna, heien ilhumbeak;
Bai phorroska lothuak dauzkaten gatheak.

PURGATORIOAZ

1

Oi! arima Jainkoaz onhetsia,
Orhoit hadi badela lekhu bat
Hemen arras zeruko justizia
Satisfatu ez duenarèntzat.

Errepika

Othoi, Jauna, othoi, urrikalmendu
Othoi Purgatorioko arimentzat.
Darotzugu galdetzen barkamendu
Heien mundu huntako hutsentzat.

2

Borratua izanaren hobena,
Ez ziaukuk Jainkoak barkhatzen,
Gaizkiari bethi zor zaion pena
Non ez dugun osoki pagatzen.

3

Hurbil hadi purgatoriotarat,
Jainko botherea bera denak
Egin duen suzko leze hartarat;
Entzunen tuk auhenik minenak.

4

Oi! menturaz, gure adiskideak
Gure gatik dire punituak;
Gure hauzo, burhaso, ahaideak,
Gure faltaz, sutan hondatuak.

5

Zuek, gure adiskide maiteak,
Diote maiz, nigar marrasketan,

Othoitz, barur eta karitateak
Egitzue gure fagoretan.

6

Othoi, Jauna, othoi, urrikalmendu
Purgatoriotan daudezenez :
Darotzugu galdetzen barkhamendu
Heien mundu huntako hobenez.

7

Bara zaite, hekier jazartzetik ;
Gehiago ez utz hek erretzen :
Ah! has beitez, atherarik su-petik,
Zutaz, Jauna, zeruan gozaten.

JESUS ONA NOIZBEIT

1

Jesus ona,
Noizbeit zure oinetan,
Gure hutsez gaude ahalketan.
Zorigaitz handiena!
Arbuiatu zaitugu.

Jesus ona!

2

Aita ona,
Othoi, hel zaizkigu :
Dugu, helas! merezi gaztigu ;
Bainan zure bihotz ona
Ah! urrikal bekigu,
Aita ona.

3

Sekulakotz,
Zinki hitz dautzugu,

Bekhatuak gaur uzten ditugu!
Zure lege saindurakotz
Dire gure botuak
Sekulakotz.

BARKHA

1

Zure kontra, Jauna,
Aita ona, ene Nausia!
Zerk nau altcharazi
Zerk nau bihurarazi.
Oi! erhokeria! hau da atrebentzia!

Barkha, Jauna, barkha,
Barkha, Jauna, barkha,
Jauna, gure Aita ona,
Barkha Jauna, ez zarea ona.

2

Erraiten zinautan
Bekhatutan nintzen demboran :
Ene haurra, haugi!
Deitzen haut eztiki!
Hil et' ifernuan nahuka egon sutan!
Barkha, etc.

3

Zure haurra, Jauna,
Hun' emana zure oinetan!
Oi! Beha zadazu,
Nahi dut barkhamendu!
Barkha beraz, barkha!
Heldu naiz nigarretan!
Barkha, etc.

BARSHA, JAUNA!

Errepika

Barkha, Jauna! bai, dolu dugu
Zu hambat ofensaturik!
Othoi, urrikal zakizkigu
Ostia saindu hortarik!

1

Aithortzen dugu zaitugula
Hainitz eta hainitz laidostatu!
Zure ongiak ditugula
Mila mila bekhatuz pagatu!

2

Zeru ederra dugu hetsi
Zure kontra egin bekhatuez!
Ifernua dugu merezi
Gure krima ikharagarriez!

3

Salbatzaile guziz saindua!
Zure kontra gira gu altchatu!
Hastio duzu bekhatua!
Eta guk bekhatua maithatu!

4

Zu hain on, hain maithagarria,
Oh! zombat zaitugun ofentsatu?
Dolu dugu, Jesus ezta!
Nahi gira zinez konbertitu!

5

Kurutzean hil izan zira
Oihazetan, o Jesus, gu maitez!

Zu maithatzen ariko gira
Gu ere bethi, Jauna, ordainez!

AMA BIRJINARI KONTSEKRAZIONEA

1

Jainkoren Ama guziz garbia,
Jesusek zuri eman nintuen
Zure haurra naizen geroz Maria
Oro zuri naitzu kontsekratzen.

Errepika.

Ama eztia othoi har nezazu,
Naizen guzia emaiten nitzaitzu.

2

Har nezazu beraz Ama eztia
Bethikotzat zure gerizean,
Ikhus zazu Satanen malezia.
Hel zakizkit lanjeren artean!

3

Lekhukotzat harturik Jaun handia
Zinez zaitut egun hitzemaiten,
Mundu huntan zaitudala
Ahal oroz maithaturen.

4

Behar banu nere hitzak hautsirik
Egun batez maithatu mundua,
Ukhan daazut seme maiteaganik
Orai berian hiltzeko grazia.

MARIARI OTHOITZA

1

O Birjina onthasunez bethea,
Beha daazu zeru gorenetik

Badakizu nere behar handia,
Zeren ez naiz flakezia baizik.

Errepika

Ama maitea,
Beha daazu
Othoi, Maria,
Salba nezazu.

2

Ifernua baita mundua galdua
Ene kontra alchaturik ere
Zu bazaitut alde, Ama maitea,
Ez dut heien beldurrik batere.

3

Bainan, helas! halere ni Maria
Lotsaz nago, bai lotsaz ikhara,
Jarrik faltan zuri behar bezala
Gal dezadan Jaunaren grazia.

4

Bai, Maria, desterru triste huntan
Niagozu bethi hasperapenez,
Zeren naizen galtzeko lanjeretan
Edireiten memento guziez.

5

Ah! noiz zaitut, idorturik nigarrak
Ikhusiren ene Ama ona,
Iraganik ene lanjer guziak,
Ah! noiz naiz bilduren zu gana.

6

Ah! Maria zuk, ontsa badakizu
Desir heiek zoinen kharsu diren,
Othoi, Ama, zu ganat deit nezazu
Bainan, othoi, lehen baino lehen.

ZERUA ZARITZAT

1	Dezazu bethikotzat Maita berthutea.
Zerua saritzat, Har kuraye Kristauk, Hemengo nigarrentzat Derauka Jainkoak.	4 Zerua saritzat, Hots bada aita, amak, Egin zuen haurrentzat Othoitz karsuenak.
<i>Errepika</i> Zerua, zerua, Zerua saritzat (<i>bis</i>).	5 Zerua saritzat, Ikhus zuen adinak Iragan demborentzat Egin nigar minak.
2 Zerua saritzat, Salba beraz arimak Utzi mundutarrentzat Atsegin galkorrak.	6 Zerua saritzat, Nola ez bozkaria, Dukegu guretzat Bethiko gloria.
3 Zerua saritzat, Hots bada, o gaztea,	

JAINKOAREN AMA

Errepika.

Jainkoaren Ama, ama guziz ona,
Zaitzagun maitha bethi, bethi (*bis*).

1

Gu ganik omaiak, onhets dizatzu.
Gu ganik lanyerak urrun ditzatzu
Jesusek bethizu. Entzuten baitzaitu
Bethi bethi.

2

Zure berthuteak errepikatzen
Ez zeru lurrak ez dira baratzen,
Gu ganik eskerrak ditutsu segurak
Bethi, bethi.

3

Gure flakeziek zure bihotza
Dute erdiratzen, samurra baita,
Gutaz izan zazu oi! urrikalmendu
Bethi, bethi.

O MARIA AMA MAITEA!

Errepika.

O Maria, Ama maitea,
Beira zazu Eskualdunen fedea,
Suhar eta kharsu azkar egon bedi-
Hersturen erdian, bethi
Suhar eta khartsu, azkar egon bedi
Hersturen erdian bethi,
Gauden gu Eskualdun bethi.

1

Salutatzen zaitut Maria,
O Ama guziz eztia!
Maite dut zure-kilan Jesus
Gure Errege handia!

2

Zu Erregina Ama zira,
Errege duzu Semea.
Jainko Gizon Erregearen,
Agur, Ama maitea!

3

Zu zaitu, zu, Jainko handiak
Guzietarik hautatu,
Zu emazte guziak baino
Gehiago ohoratu.

4

Zure ganik sorthu izan da
Gizon Jainkoa munduan,
Jainko Aita ganik sortzen den
Seme Jainkoa zeruan.

5

Birjina, Jainkoaren Ama,
Aingeruen ohorea,
Gizonen ere zare Ama,
Satanen bentzutzailea.

6

Ez dut oraino behin ere
Mundu huntan nik aditu
Zure haurretarik duela
Jainkoak abandonatu.

7

Gu bekhatore trichteentzat
Othoitz egizu zeruan ;
Baitira lanyer handietan
Bizi direnak munduan.

8

Hiltzerakoan bereziki
Lagun gaitzatzu, Maria!
Zure bidez ardiesteko
Zeruetako loria!

MAIATZA DA

Errepika.

- | | |
|--|--|
| Maiatza da urtheco
Sasoin ederrena,
Amaren laudatzeko
Hautatzen duguna. | Humilki brioleta
Nahi da mintzatu,
Ama zein den modesta
Guri erran nahi du. |
| 1 | 6 |
| Lore berezienak
Eman diotzogun,
Bihotzik khartsuenak
Ofreiturik lagun. | Arrosa mudatzen du
Tempesta gogorrak;
Amodioa ez du
Nihoiz galtzen Amak. |
| 2 | 7 |
| Sasoin berrian oro
Dire maitagarri;
Bainan komparatzeko
Zer da Mariari? | Arrosa zabalduak
Dauku seinalatzen
Birjina amultsuak
Zein maite gaituen. |
| 3 | 8 |
| Eder da iguzkia
Agertzen zeruan
Ederrago Maria
Jarria tronuan, | Bertuten iduria
Da lorea landan.
Bertuteak, Maria,
Ematzu gu baithan. |
| 4 | 9 |
| Loriaz da agertzen
Goizeko argia;
Bainan du ahalgatzen
Mariak iguzkia. | Gutarik urrun zatzu
Atsegin galkorrak,
Begiak iduk zatzu
Gu ganat hedatuak. |
| 5 | 10 |
| Oihuz lili churia
Dago haranean;
Ama zein den garbia
Guri nahiz erran. | Iguzu baltsaturik
Zeruetan bozak
Detzagun kanta bethi
Zure ontasunak. |
| | 11 |

MARIA GUZIZ SAINDUA

1

Maria guziz saindua,
Berthutez berregindua,
Graziez aberastua.
Zure ganik Salbatzailea
Sortu zaiku, Ama maitea.

Errepika

Maria gure Ama da,
Dugun maita, dugun lauda,
Maria gure Ama da,
Maria, Maria, dugun maita, dugun lauda (*bis*).

2

Oi Erregina handia
Zein zaren miragarria!
Ikhusten zaitut jarria
Seme maite baten aldean,
Tronurik distirantenean.

3

Sainduek izarren pare
Zeruan argitzen dute;
Zu distirantago zare
Creatura pare gabea.
Birjina garbien lorea.

4

Inguratua botherez,
Bethea eztitasunez,
Amodiozko su kharrez
Hobendunen ihes lekua
Zare zu Ama amultsua.

5

Zure izenak, Maria,
Bozten daut bihotz guzia
Emaiten konfidentzia;
Ifernua dut ikharatzen
Zu zaitudanean aiphatzen.

6

Grazien kanal garbia,
Goizeko izar argia,
Gidari miragarria,
Zure ganat bethi begiak
Idukiren tut zabalduak.

7

Seculan ez da galduren
Zuk duzuna fagoratzen,
Zure laguntzaz inguratzen :
Ah! beraz, othoi, Ama ona,
Ez nezazula abandona.

LAUDA MARIA

Errepika

Lauda Maria
Zeru lurren erregina;
Lauda Maria
Andre ona.

Diozogun eman gure bizi guzia
Bethikotzat orai danik;
Dezagun kanta
Gure bozak balsaturik,
Dezagun maita
Bihotzetik.

1

Zu maitatzea,
Erregina guzizkoa,
Zu maitatzea
Zer gozoa!

Maite zaituenak, o graziaz bethea,
Egiazki bihotzetik,
Bake maitea
Gozatzen du orai danik,
Beldur tristea
Kasaturik.

2

Heda dauzkutzu,
Maria, zure besoak;
Begira zatzu
Zure haurrac.

Gure esperantza zutan emana dugu,
Zatozkigu laguntzera;
Gida gaitzatzu,
O itsasoco izarra,
Zeruko portu
Dohatsura.

3

Mundu gaichtoak
Berekin nahi nau galdu,
Ifernu beltzak
Enganatu;

Bainan bentzuturen tutzu nere etsaiak,
Erregina puchantena,
Behar orduan
Eginen dut zure ganat,
Laster lehian,
AMA ONA;

4

Mundu guzian
Zaitetz bethi laudatua,
Mundu guzian
Maitatua ;
Nahi zaitut bethi iduki bihotzean
Ama ona, Ama eztia ;
Bainan ordainez
Ardiets niri grazia
Hiltzea kharrez,
Oi Maria.

MARIAREN IZENA

Errepika

Mariaren izena
Laudatzen da egun,
Izenik maiteena
Baltsan kanta zagun.

1

Ah! bozak baltsaturik,
Amaren izena

Laudatzea gogotik
Haurren atsegina.

2

Mariaren izena
Zein den handi gozo,
Eta gozotasuna
Bethi handiago.

3

Mariaren izenak
Satan du bentzutzen,

Urruntzen tu lanjerak
Arima libratzen.

4

Agintzen du zerua
Justu khartsuari,
Eta barkhamendua
Bekhatoreari.

5

Deus ez da hain sa-
[murrik,
Zeruak maite du,
Deus ez da hain haz-
[karrik,
Satan harritzen du.

6

Eztia ez zait niri
Hain gozo ahoan,

A nola izen hori
Baitzait bihotzean!

7

Jesusek erran zuen
Hitzetan lehena,
Hirriz aiphatu zuen

Amaren izena.

8

Bitz ene azken hitza
Amaren izena,
Eta azken othoitza
Egingen dudana.

OI BIRJINA (REINE DES CIEUX)

1

Oi Birjina, Ama ona,
Entzun zatzu zure haurrak,
Senda zatzu, garbi zatzu,
Bekhatorosen bihotzak (*bis*).

2

Garraitia, o Maria,
Satan beltzaren gainean
Emaguzu; ez zaitugu
Ahantziren guk sekulan (*bis*).

3

Karitate eta fede,
Esperantza biziarena
Gure baithan dadin izan
Egiuzu, Ama ona (*bis*),

4

Bihotzeko bake gozo,
Bertutearen fruitua,
Emaguzu; iduk-azu
Gure baithan finkatua (*bis*).

5

Ifernutik, bekhatutik
Urrun gaitzatzu, òi Amá;

Bethi garbi, khartsu bethi,
Iduk daukuzu arima (*bis*).

6

Itsasoan, lama pean,
Helas, goatzi hondatzerat,
Zuk eskutik alchaturik
Gida gaitzatzu porturat (*bis*).

7

Heriotzeak, gure arimak
Ez detzala bekhatuan
Betan alcha eta honda
Bethikotz suzko lezean (*bis*).

8

Gure othoitzak, oibu minak,
Baldin entzuten baitutzu,
Korona bat zure haurrentzat
Zeruan prepara zazu (*bis*).

9

A! orduan, lorietan,
Zure izen maitagarria
Laudatuko-kantatuko
Dugu bethi, oi Maria (*bis*).

SALUTATZEN ZAITUGU

1

Salutatzen zaitugu, o Maria
Graziaren Ama dohatsua!
Zeru lurren Erregina handia,
Zure oinetan gare hondatuak.

Errepika

O Maria, Ama ona,
Hain ezitia zarena,
A! urus zu maite zaituena!
Aurkhitu du bere zoriona (*bis*).

2

O zu beraz, Erregina handia,
Erzebebi zatzu gure homaiak;
Zu zare zu bekhatoren bizia,
Ikhus-atzu heien dolu minak.

3

Ama batek lehen galduz geroztik,
Zuri oihuz nigarra begian
Bethi gaude mundu triste huntarik,
Adituren gaitutzu agian.

4

Itzul zaite zure haurren aldera,
Ikhus-azu beharra dugula;
Beha zazu mundu triste huntara
A! erakuts, maite gaitutzula.

5

Mundu huni Jesus eman duzuna,
Zuk egizu hiltzen garenean,
Gu haimbertze maitatu gaituena
Zagun ikhus zurekin batean.

AGUR AINGERUEN

1

Agur aingeruen
Eta zeru lurren
Erregina puchanta;

Ederra zare guzia,
Histen duzu iguzkia
Zein zaren distiranta! } *bis.*

2

Graziaren Ama,
Ama guziz ona.
Urrikalmendutsua!
Zure miserikordia
Zein den espantagarria } *bis.*
Oi zer ihes lekua!

3

Bethi on, amultsu
Kausitzen zare zu
Bekhatorearentzat:
Ez da hain gozo eztia
Nola baitzare Maria } *bis.*
Ene gostuarentzat.

4

Penatuak diren
Haur dohakabeen
Kontsolazionea:
Zu zare zu, oi Maria
Bekhatoreen bizia, } *bis.*
Loriako athea.

5

Zutaz maitatuak
Eta lagunduak
Ez ohi dire galtzen;
Zutan ene esperantza,
Deskantsaturik bihotza, } *bis.*
Bethicotz dut emaiten.

6

Lur triste huntarik
Noizbeit atherarik,
Zu ganat hel gaitzatzu;
Zure seme dibinoa
Zein den on eta gozoa
Irakuts ezaguzu.

} *bis.*

O JAINKOAREN AMA

1

O Jainkoaren Ama
Birjinen Birjina
Zeruco Erregina;
O Jainkoaren Ama,
Bethi garbi egon zarena;
Zure loria
Zein den handia,
Zure tronua
Zein gora altchatua
Arkanjeluen,
Saindu guzien
Gaineko; zu zaitut maitatzen.

} *bis.*

2

Gure Ama maitea,
Graziaz bethea,
Zeruko portalea,
Gure Ama maitea,
Ai gure kontsolatzailea;

Beha zaguzu
Entzun gaitzatzu
Lagun gaitzatzu
Othoi, zu, hel zaizkigu;
Maite zaitugu,
Maita gaitzatzu,
Gure Ama ona zare zu.

bis.

3

O bihotz sakratua,
O bihotz khartsua
Amodioz zaurtua;
O bihotz sakratua
O bihotz guziz amultsua;
Nork du ikhusten
Nork d u asmatzen,
Nork komprenitzen
Zu zein samurra zaren;
Zure su kharrak,
Amodioak
Noiz erreke gaitu guziac.

bis.

4

Bekhatore tristen,
Ume penatuen,
Gaitzetsiak direnen,
Bekhatore tristen,
Pena, ilhumbetan direnen,
Altchatzailea,
Laguntzailea,
Borthiztailea,
Guzien fagorea;
Ama maitea,
Othoitz Semea
Grazia guzien jabea.

bis.

AGUR AMA (O MÈRE CHÉRIE)

1

Aur Ama Jesus maitearena,
Ametan zu zare eztienea;
Zer zorion zure izaitea,
Zer loria zure maitatzea!

Errepika

Birjina Maria, noiz bada
Ni zure lorian, zeruan!

2

Haur gaicho bat, nahigabez hartua,
Den bezala amaren alderat
Lehiatzen; gu bihotza urtua
Gare heldu zure oinetarat.

3

Bidean dohanari ilhargiak
Ilhumbeak diozka argitzen,
Arimetan penarik ilhunetak
Hala tutzu eztiki suntsitzen.

4

Ez da deusik barnea darotanik
Hambatere pizten eta bozten,
Ez atsegin ez eta ontasunik
Nola zuk nauenik deskantsatzen.

5

Ziten beraz, Ama, ohoratua,
Zeru lurrez bethi laudatua,
Zarelakotz gure ihes lekhua
Bethidanik gure kontseilua.

6

Hel bada, hel, zu gure esperantza
Hel bada, hel, oi gure laguntza;
Ah! akhabo, bertzenaz ifernua
Laster, daite gutaz nausituko.

7

Zaude beraz, oi Birjina Maria;
Zeruetan bethi atzarria;
Egiguzu Jesus ganik grazia
Dugun segi guk zure bizia.

O MARIA IGAN ZARE

1

O Maria, igan zare zerura,
Ni nola naiz oraino lurrean;
Ikhusten dut Ama dohatsu hura
Bere Seme Jesusen aldean,

Errepika

Goazen goazen zerura
Hegaldaka egun,
Han Ama maite hura
Zerbitza dezagun.

Batek : Ama haren ondotik
Goazen haren gana
Urrun haren aldetik
Non da zoriona.

Orok : Goazen goazen, zerura etc.

2

Oi Birjina, nahi zaitut segitu
Ez dut nahi bizi mundu huntan,

Bai zerurat nahi naiz hegaldatu
Amodioaren hegaletan.

3

Zuk lurrean eman duzun bizia
Lehiatu gare segitzera,
Parti gaiten; zeruan da Maria,
Goazen; goazen hartaz goatzera.

4

O ametan hoberena, egizu
Haur guzien othoitzak entzunik,
Zeru hortarat helaraz gaitzatzu
Heriotze saindu bat eginik.

ZERU LURREN ERREGINA

(O GLORIOSA DOMINA)

Errepika

Zeru lurren Erregina,
Saindu guziez gorena,
Zu kreatu zaituena
Ordainez hazi duzuna (*bis*).
Agur Ama samurrena
Mirakuiluzko Birjina.

1

Hobendunen Erospena
Lurrari eman duzuna,
Zure baithan (*bis*) konfidatzen dena
Sekulan galdu (*bis*) sekulan galduren ezdena.

2

Zembat bothere ez duzu
Zeruan errezebitu,

Zuri ditu (*bis*) gure fagoretan
Graziak eman (*bis*) graziak Jesusek hiltzean.

3

Nork prezaturen du ongi
Zer duzun ardietsi,
Gure Amak (*bis*) gaituenean gu,
Jesus hiltzean (*bis*), bere haurtzat hartu.

MARIAREN BIHOTZA (C'EST LE NOM DE MARIE)

1

Mariaren bihotza
Lauda, haurrak, egun;
O Bihotz aberatsa
Bethi maita zagun.

2

Bekhatore tristea
Oihuz nago zuri;
Nitaz, bihotz maitea
Izan urrikari.

3

Zuk duzu bekhatua
Bihotzetik khentzen,
Arima penatua
Duzu kontsolatzen.

4

Zuk duzu ifèrnua
Garraitzen osoki,
Seguratzen zerua
Duzu justuari.

5

Mariñelen tempestan
Izar gidaria,
Arimaren gudutan
Zare sokorria.

6

Zutan bere egoitza
Jaunak du moldatu
Bai eta zure baithan
Templo bat hautatu.

7

Bihotz guziz puchanta
Nola zu goraki,
Nola zu nik ez lauda
Orai eta bethi.

ENE AMA DA

1

Ene Ama da :

Nola ez dut maitatuko!
Ona da, maitagarria da,
Deus hain ezti, deus hain gozo;
Guziek adi dezatela
Nola ez dut maitatuko?
Maria ene Ama da (*bis*).

2

Ene Ama da :

Nola ez nau maitatuko!
Urrikalmenduz bethea da;
Ni dohatsu egiteko
A! ongi baitu hartzen artha;
Nola ez nau maitatuko?
Maria ene Ama da (*bis*).

3

Ene Ama da :

Nihoiz ez dut ahantziko
Ene bakea, ene gida.
Hura baithan pausatua
Dut bethi ene esperantza;
Ez dut nihoiz ahantziko;
Maria ene Ama da (*bis*).

4

Ene Ama da :

Nihoiz ez nau ahantziko;
Satan ethortzen balimbada,
Mariak nau ni zainduko,
Ene argia da, laguntza da.

Ez nau nihoiz ahantziko;
Maria ene Ama da (*bis*)

5

Ene Ama da :
Bai bethi dut maitatuko,
Ene baithako gozoa da;
Lurrean bizi naizeno
Hitz dautzut, hala izanen da;
Bethi dut nik maitatuko;
Maria ene Ama da (*bis*).

6

Ene Ama da :
Bai bethi nau maitatuko;
Hura baithan dut esperantza
Zeruan ene laguntza;
Delakotz on eta puchanta,
Bai bethi nau maitatuko;
Maria ene Ama da (*bis*).

7

Ene Ama da :
Nola ez dut maitatuko?
Ah! frogatzen dut ona dela,
Maite nuke hiltzeraino.
Ene azken hitza izanen da :
Nola ez dut maitatuko?
Maria ene Ama da (*bis*).

MAITE ZAITUT (PITIÉ, MON DIEU)

1

Maite zaitut, oi Birjina Maria
Eta bethi maitatuko.

Ama maitagarria, nere bihotz guzia
Izan bedi zuretzat bethiko.

Errepika

Oi gure esperantza

Zu zare Maria

Salba zazu Eliza

Bai eta Frantzia.

} *bis.*

2

Nor liteke bihotz bat izan eta

Zu maitatu gabe lagokenik;

Nik zu nola ez maita, nere baithan ez baita

Zu maitatuz beizik zorionik.

3

Bainan ene bihotzaren ahala

Hain ahul da eta hain da guti;

Ai nie ere ochala, Aingeruek bezala,

Ama, zure maitatzen banaki,

4

Oi Maria, zure bihotz khartsutik

Salta bedi pindar bat nitara;

Zure amodiotik han su lotuz geroztik

Erretzetik ez nadien bara.

5

Zu baitharik pizturikako kharraz

Maita niro Jesus gehiago;

Nere bihotz bakharraz, edo nere indarraz

Deus ez dirot; Ama, zuri nago.

6

Ez banauzu ni zuk bethi laguntzen,

Zein erorkor naizen badakizu;

Beraz zeren ez naizen bekhatoros bat baizen

Zure haurra, urrikal gaizkitzu.

GARBI ZARE

1

Garbi zare, Maria
Nota gabe guzia;
Zure haurrak entzun zatzu
Zato, othoi, har gaitzatzu;
Zato, othoi, har gaitzatzu.

2

Zu zare zeruko athea
Zu gabe sekulan
Ez da nihor, ama maitea
Sartuko hango lorian.

3

Amultsuki gu gainerat
Othoi, heda dezazu
Begi kolpe ezti bat
Eta gaitezke dohatsu.

4

Emaguzu inozentzia
Bake gozoena;
Garbitasun maitagarria
Loretan den ederrena.

5

Zeruko hasarradura
Merezitu dugu;
Barkhamendu, Ama samurra,
Zuk ardiets dezaguzu.

6

Zure besoen artean
Bethi juntaturik,

Iduk gaitzatzu gerizan
Satanen eskuetarik,

7

Zeru lurren Erregina,
Esperantza dugu,
Zure haurrak, oi ama ona,
Zeruan emanen tutzu.

ALEGERA DADILA

1

Alegera dadila lur guzia,
Ilhumbeak dire suntsituko;
Ikhusten dut, agertzen da argia
Egunaren guri emaiteko.

Errepika

Lauda zagun Maria,
Ama maitagarria;
Bihotzetik orok kanta zagun :
Zuri, Ama, oro gaude egun (*bis*).

2

Suntsi beraz, suntsi, oi hedoi beltza,
Ager zaite, zu izar ederra.
Igor azu hibaika zure argia,
Zato, zato gure laguntzera.

3

Aspaldion ginauden nigarretan,
Eba baten haur dohakabeak;
Bainan hau da presenta! azkenean
Eman dauku ama bat zeruak.

4

Lehenago Eba bekhatorosak
Ginituen hiltzekotzat saldu;
Bainan Eba saindu maitagarriak
Hiltzalea bera du bentzutu.

5

Uste zuen guziak suge beltzak
Zituela batekin galduko;
Bainan ume batek ditu guziak
Eba harren haurrak salbatuko.

6

Oi, hauche da kreatura ederra
Kontzebitu den mement berean;
Eder den gatik goizeko izarra,
Ez da deusik hunen aitzinean.

OI BIRJINA

1

Oi Birjina zein den miragarria
Zein ederra egun zure egoitza!
Egun huntan lehenago, Maria
Nautzun eman bethikotzat bihotza;
Zer zorion bihotzean
Senditzen dena zutaz orhoitzean (*bis*).

2

Oi Maria, ene Ama maitea,
Zembat ongiz nauzun fagoratu;
Zembat aldiz bihotzeko bakea
Zure ganat ethorritz nik aurkhitu.

3

Satan beltzaz hainaiz inguratua,

Oi Maria, zuk nauzu laguntzen.
Bai zuk bere buru phozoindatua
Zangopean diozu lehertzen.

4

Jainko Jauna dudanean ukhatu
Orhoitzapen oi guziz tristea.
Zure ganat, hura nahiz garhaitu,
Heldu nintzen urrikiz bethea,

AMODIOZ BIHOTZA (PITIÉ, MON DIEU)

1

Amodioz bihotza sustaturik,
Ama ona, huna zure haurrak
Heda zatzu, othoi, zure tronutik
Amultsuki gu ganat begiak.

Errepika

Ama ezta, Ama ona,
Zu zare zu Maria gure zoriona

edo

Oi gure esperantza zu zare Maria,
Salba zazu Eliza, bai eta Frantzia.

2

Iguzkiak zabaltzen tu loreak,
Oi Birjina, zure ohoretan,
Nola iduk detzazkegu bihotzak
Zerratuak zure aitzinean.

3

Alferretan suge amarrutsuak
Errabian bilhaturen gaitu ;
O Maria, zabaldurik besoak,
Amultsuki harturen gaitutzu.

4

Bihotz onez bethi eginen dugu
O Birjina; zuk nahi duzuna;
Ditugunak kontsekratzen daitzugu
Amodioz, gure Ama ona.

5

Bere Ama Jesusez eman dauku
Ararteko, oi zer fagorea!
Ama hura ohoratzen badugu,
Maitatua daiteke Semea.

6

Ah! ez dugu orai bertze nahirik
Baizen bethi zure maitatzea;
Har gaitzatzu, eta iduk oraitik
Hiltzeraino, oi Ama maitea,

ESKUALDUNEK

Aire bera

1

Eskualdunek, o Birjina Maria,
Amodio ohore dautzugu;
Zu hain ona, zu hain botheretsua
Nola aski lauda zaitzazkegu?

2

Eskualduna zure arbasoekin
Azkazian omen zen demboran;
Zure odol bereko gare egin
Zure Seme Jesusen odolaz.

3

Gure Ama zarela orhoit zaite
Gurutzetik semeak emana;

Eta guk zu zembat zaitugun maite
Jainkoaren eta gure Ama!

4

Eskualdunak lehen lehenetarik
Izan ginen eginak fededun;
Eta zuhaurk, lurrean zinetarik,
Agertze bat egin zinerakun.

5

Santiago gure Apostoluak
Zuk lagunduz gintuen argitu!
Zuk orduan utzi pilar sailduak
Zaragozan ohoreak ditu.

6

Hemeretzi mende igan ondoan
Lurden zare orai izan berri;
Lurda hori baita gure hauzoan,
Ez othe zen lehen Eskual-herri?

7

Pilar eta harroka hoik bezala,
Zuk, Maria, idukiz zerutik,
Eskualdunak bethi iraun dezala
Bere fede zaharrean chutik.

8

Eskualdunei fedea khendu nahiz,
Etsai gaitzek gaituzte hertsatzen;
O Maria, zu gure alde jarriz,
Deusek ere ez gaitu lotsatzen.

9

Gure zuzen lurrekoak galdurik,
Oso dugu oraino fedea;
Eskualduntzat ez da ezagaturik,
Gutartean federik gabea.

10

Huna bai gu zer garen Eskualdunak
Eta bethi izan gogo ere :
Katholiko, legezko fededunak,
Jesu-Kristo dugunak Errege.

11

O Maria, zuk begira gaitzatzu
Nausi eta lege gaichtotarik ;
Jainko legez bizi gaiten dohatsu,
Izan gabe nihondik trabarik.

12

Guk ere bai Jaunaren hasarrea
Pitzarazi dugu hainitzetan ;
O Maria, othoi, zure Semea
Ezti zazu gure fagoretan.

13

Othoi lagun gaitzatzu, o Maria,
Gure behar ordu guzietan ;
Osagarri, ontasun, familia,
Zerurako gure urhatsetan.

AGUR AMA BIRJINA

1

Agur ama Birjina
Ama Lurdekoa,
Zeruko Erregina
Eta lurrekoa ;
Oi guretzat zer ama
Zer arartekoa,
Berea dagokana
Seme bat Jainkoa.

2

Munduko usin-pean
Itho ez gaitezen,
Zure botherea han
Daukuzu agertzen ;
Erori garenean
Gaituzu altchatzen
Eta bide onean
Eskutik gidatzen.

3

Gure arbasoak lehen
Oi zer fededunak!
Ama zu ganat ziren
Maiz ethortzen hunat.
Orai ere gu hemen
Gare Eskualdunak,
Maiz zure laguntzaren
Beharra dugunak.

4

Othoitzez gaozkitzu
Hemen zure oinetan,
Fedea finka zazu
Gure bihotzetan;
Osasuna iguzu
Gorphutz arimetan,
Zerurat hel gaitzatzu
Zure besoetan.

ORAITIK (EN CE JOUR, Ô BONNE MADONE)

1

Oraitik,
Oi Ama maitea,
Naiz zurea
Gogotik.

2

Boz batez
Zaitugu laudatzen,
Ohoratzen.
Bihotzez.

3

Gau egun
Oihuz nagokizu,
Zuk nazazu
Ni lagun.

4

Zuretzat,
O ama, banintz on,
Zer zorion
Neretzat!

5

Ni ganat
Izar ederra zu,
Heda zazu
Pindar bat.

6

Gogotik
Amak du barkhatzen,
Atheratzen
Lezetik.

7

Guzia
Nadin izan zure
Bethiere,
Maria.

8

Oi guri
Zuk zer ontasunak
Deskantsuak
Ichuri.

GOAZEN MARIAREN (ZURI GAUDE)

Errepika

Agur, Agur, Agur Maria (*bis*)

1

Goazen Mariaren haurrak

Gure Amaren oiñetarat;

Lehia gaiten guziak

Bihotzez hari erraiterat :

Agur, Agur, etc.

2

Gure guzien Ama da

Beraz egungo besta huntan,

Dezagun goraki lauda

Kantatuz mil eta miletan :

3

Aingeruei junta gaiten

Gure bihotzak sustaturik,

Hek dutena errepikatzen

Errepikatzen dugularik :

4

Zein puchanta den Maria,

Zeruetako Erregina!

Haren medioz grazia

Jausten da bethi gure gana.

5

Hura da gure laguntza

Munduco behar guzietan;

Hura gure esperantza

Hirriskurik handienetan.

6

Maria, bai hitz dautzugu
Zuri fidel gare egonen
Zu zerbitzatzuz ditugu
Gure urtheak iraganen.

7

Gure bizia dautzugu
Orai gogotik kontsekratzen;
Bethi, othoi, hel zaizkigu,
Zuk lagun gaitzatzu salbatzen.

AMODIO, OHORE (ADÉMA).

1

+ Amodio, ohore
Ama Birjinari,
Maria nota gabe
Kontzebituari.

2

+ Gure lehen ait-amen
Bekhatuak ez du
Seculan Mariaren
Arima goibeldu.

3

+ Bekhatu gabekorik
Adamen arrazan
Ez zu bezalakorik
Ez da nihoiz izan.

4

Maria, zu hain garbi,
Hain saindu sortua,
Zuk duzu sugeari
Lehertu burna.

5

Jaunak zu bethidanik
Zintuen beiratzen,
Zure seme zu ganik
Sortzekoa baitzen.

6

Jainkoaren eskutik
Ez da atheratu
Obrarik hain perfetik
Nola baitzare zu.

7

O Birjina Maria
Zerk du zu iduri?
Elhur egin berria
Ez zait aski churi.

8

Zure baithan Maria
Bertutea dago
Mendiko ithurria
Baino garbiago.

9

Zutan gauza handiak
Jaunak egin ditu;
Eta haren graziak
Zaizkitzu gainditu.

10

Jaunaren baratzeko
Lore sakratua,
Gizon da eta Jainko
Zure fruitua.

11

Mirakuilu bat zare
Jainkoak egina,
Nihon parerik gabe
Ama eta Birjina.

12

Zu zare bai guretzat
Jainko baten Ama,
Bainan gure Amatzat
Semeak emana.

13

Zure Semea hiltzen
Hari zelarikan,
Gutaz amatu zinen
Dolore handitan.

14

*Orai zein puchant za-
Birjina Maria [ren
Zeruko loriaren
Erdian jarria!

15

*Othoi, zure laguntza
Maria, iguzu;

Zure haurren othoitzza
Ama, entzun-azu.

16

Lurden zinen agertu
Maria, haur bati,
Gero zer den gertatu
Munduak badaki.

17

Harroka hau zen lehen
Urik gabekoa :
Hemendik orai arren
Ura nasai doa.

18

[zak,
Arimak bai gorphut-
Zahar eta gazte :
Hemen sendatu gaitzak
Nork konda detzazke.

19

Gure Ama maitea,
Zuk, othoi, zerutik
Eskualdunen fedea
Iduk-azu chutik.

20

Eliza eta Frantzia
Daudetzu nigarrez
Zure ganik Maria
Laguntza beharrez.

21

Lagun zazu Eliza
Zure bothereaz;
Zure besoak beza
Frantzia altcharaz.

U HOLDE BATEN (ADÉMA)

1

Uholde baten pare,
Orai bekhatuak
Gaindiz bazter guziak
Ditu hondatuak;
Non dire fededunak
Non dire justuak?
Azken eguna hurbil
Othe du munduak?

Errepika

Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu;
Jaunaren hasarrea
Othoi ezti zazu.

2

Gizonen erreboltez
Hasarre Jainkoa
Bere azotearen
Higitzera doha;
Nor da iduk dironik
Jaunaren besoa?
Zu zare zu, Maria,
Indar hartakoa.

3

Nor da gure artean
Erran dezakenik :
Jainkoak ez nau joko,
Nik ez dut hobenik.
Zuk dirozu, Maria,

Hain garbi izanik,
Gure grazia ardiets
Jainkoaren ganik.

4

Jaunaren justiziaz
Ikharetan gaude,
Othoi, Ama, jar zaite
Zure haurren alde;
Haren gana nor hurbil,
Nor ager zu gabe?
Zu zaitugu zu haren
Bihotzaren jabe.]

5

Jauna, aithortzen dugu
Gutarik hainitzi
Zuri zer zor ginautzun
Zitzaikun ahantzi;
Fedea dugu hambat
Ttikitzerat utzi;
Eskualdunaren ganik
Hori zaitzu gaitzi.

6

Lehengo fede hura
Berritz pitz dakigun,
O fededunen Ama,
Zuk gaitzatzu lagun.
Hots! Eskualdunek he-
[men
Hitzeman dezagun

Bethi zinez izanen Garela fededun.	Salbu da mundua.
7	8
Oi zer penetan dagon Gure Aita Saindua! Kolpe beraz Frantzia Nola minhartua! Maria, entzun zazu Hekien oihua. Hek altchatzen baitutzu	Salutatzen zaitugu Lurdeko harpea Zembat mirakuilez den Lekhu hau bethea Hemen zare agertu O Ama maitea Hemen zabaltzen zaiku Zeruko athea.

AGUR IZAR (NOUS VOULONS DIEU)

1

† Agur, Izar kontsolagarri,
Kristauen argitzailea;
Birjina bethi maitagarri,
Zeruetako athea.

Errepika

Onhets zazu, Maria,
Gure hitz garbia :
Jesus dugu nahi Aitatzat
Jesus gure Erregetzat. } *bis.*

2

† Misterio espantagarri,
Jainko da zure Semea;
Sabelean duzu ekharri
Ororen Creatzailea.

3

† Gabriel Aingeruarekin :
Agur, dautzugu erraiten;

Jaunen Jauna dela zurekin
Oroc dugu ezagutzen.

4

Lehen Amak zuen hedatu
Munduan heriotzea;
Munduari duzu bihurtu
Bizia eta bakea.

5

† Ama urrikalmenduzkoa,
Gaude gu zure oinetan;
Zure bothere guzizkoa
Dugun senti beharretan.

JESU KRISTO DUT

Errepika

Jesu Kristo dut nik nausitzat,
Harentzat ene bizia,
Giristino naiz bethikotzat,
Hori da ene gloria.

1

Giristino naiz bathaioaz
Bekhatutik garbitua,
Jaunaren grazia gozoaz
Izan naiz aberastua.

2

Giristino naiz, erran beraz
Goraki mundu guzian,
Aita, Seme, Izpirituaz,
Naizela hartua izan.

3

Giristino naiz, zure haurra,
O Eliza! naiz egina;
Hautsiko dut etsaien herra,
Hartuz zure irakaspenna.

4

Giristino naiz, desterruan
Bizi naiz hits eta triste,
Bainan gero zure zeruan,
O Jesus, menderen mende.

LEHEN KOMUNIONEKO EGUNEAN

1

Haurrak altcha bihotzak zuen Jainkoari;
Humilia zaitezte Jesus maiteari.

2

Ahuspez suspiretan eta nigarretan
Gaude hemen guziak Jesusen oinetan.

3

Huna non ethorri den Jaunaren eguna;
Zuen ganat heldu da Salbatzaile ona.

4

Oi! egun dohatsua ethorri zaukuna!
Nork dezake kompreni gure zoriona!

5

Othoitz zaitzue, haurrak, egun handi huntan
Zeruko dohatsuak zuen fagoretan.

6

O Birjina Maria, gure Ama ona,
Aurretzat othoitz zazu zure Seme Jauna!

7

Ofentsatu tutzue zuen burhasoak!
Umilia zaitezte egun, haur maiteak.

8

Ah! othoi barkhamendu, aita eta ama!
Baketurik gohazen Jainkoaren gana!

KOMUNIONE AITZINEAN

1

Urrun zaitezte, haurrak, bekhatu gaichtotik,
Begiak apartatuz haren charmetarik.

2

Adio, bekhatua, adio bethikotz!
Jesus gana gohazik orai sekulakotz!

3

Huna Jesus maitea mahain saindu huntan
Non tutzun haur gazte hauk kharra bihotzetan.

4

Zato, Jesus maitea, zato, zato, zato!
Ez gure zoriona luza gehiago!

5

Jesusen Gorphutz eta Odol sakratuak
Begira zaitzatela, gure haur maiteak!

KOMUNIONE ONDOAN

1

Haurrak, zuen bihotzek zer othe diote?
Guzien aitzinean erran gaitzatzue.

2

Bozkario handitan orai gare sarthu,
Zeren Jaunak gaituen egun bisitatu.

3

Zer grazia handia zuen arimetan
Ukhan duzuen, haurrak, orai mement huntan!

4

Nola edo zer gisaz gare mintzatuko
Jesusi esker onen ongi bihurtzeko.

5

Hor da orai zuekin, altcha orok bozak,
Eta Jesusi eman bethikotz bihotzak.

6

Jesus dugu gurekin, gu ere harekin
Kontsekratzen gitzaizko oro elgarrekin.

ALTCHA GOAZIN BATHAIOKO

1

Altcha, goazin bathaio-
Ithurri sakraturat, [ko
Kristau egin gineneko
Botuen berritzera.

Errepika

Arnegatzen dut, biho-
Dut Satani behin [tzez
Bethikotz ukhatzen,
Bis : Zerua lurra leku-
ko hartzen.

2

[tan

Sortzeak ekharri zau-
Arrastaren haxteko,
Jaunaren legea eman
Zitzaitan bethetzeko.
Arnegatzen dut...

3

Ardiesteko bizia
Bermez nautzun hitz e-
Nuela lege guzia [man,
Idukiko demboran.
Arnegatzen dut...

4

Botu haukien ondoan,
Apheza zen altchatu,
Ene ganik laster zohan
Satan zuen manatu.
Arnegatzen dut...

5

Kurutzearen seinalez
Zautaten irakhatsi,
Behar nuela kurutzez
Zerua ardietsi.
Arnegatzen dut...

6

Gatzak zautan seinala-
Berthuteko jaidura; [tu
Nik ordean besarkatu
Jainkoaren bandera.
Arnegatzen dut...

7

Templo sainduan sar-
[tzera
Ninduten gero utzi,
Ozarren zori-gaitz bera
Nuen arren merezi.
Arnegatzen dut...

8

Eliza bethean nintzen
Etsai egin Satanen;
Ordean ene agintzen
Bethi hari naiz hausten.
Arnegatzen dut...

9

Ez behin, bai hiruretan
Zaitanean galdetu
Arnegatzen bada du-
[dan,
Bai-etx dut egin oihu.
Arnegatzen dut...

10

Trinitatea goraki
Nuen guziz aithortu;
Zembat moldez ageriki
Ez dut gero ukhatu?
Arnegatzen dut...

11

Bathaiatu aitzinean
Satan zen ene nausi;
Ura ikhusi zuenean,
Laster zen joan ihesi.
Arnegatzen dut...

12

Ur saindu hark khendu
[zautan
Aita-Adamen hobena;
Krismak berehala e-
Giristino izena. [man
Arnegatzen dut...

13

Soin churia nuen jaun
Zeren nuen etsaia [tzi,
Bere armazoinaz bilhu-
Eremanik garhaia. [zi,
Arnegatzen dut...

14

Ezko biztuak zarotan
Fedea seinalatu,
Zeinak gure obra one-
Bizia beñar baitu. [tan
Arnegatzen dut...

15

Trinitate saindua zen
Nitaz guziz hartua,
Ene arima hain baitzen
Eder, berregindua.
Arnegatzen dut...

16
Aitak bere haur maite-
[tztat
Bertzetarik hautatu;
Semeak premu lagun-
[tztat
Ninduen aldaratu.
Arnegatzen dut...

17
Bere egoitzazuen hartu
Nitan Izpirituak;
Halaber ziren bekhaiz-
Ordutik ifernuak. [tu
Arnegatzen dut...

18
Alfer Satan errabian,
Bere arte galkorrez,

Dabila ene inguruan,
Ni atzeman beharrez.
Arnegatzen dut...
19
Bekaitz ene ongi iza-
[naz
Galdu nahi ninduke:
Bainan Jesusen izenaz,
Garhai izan naiteke.
Arnegatzen dut...

20
Munduak bere pompe-
[kin
Ez nau lilluratuko,
Haragiak plazerekin
Ez nau, ez beretuko.
Arnegatzen dut...

ZER ZORION

1

Zer zorion, oi hau da fagorea
Horra, horra, zeruko Jainkoa
Jautsia da gure aldaretara
Gure gatik sakrifikatzerat.

Errepika

Zato, zato, ene Jesus maitea,
Zu zare, zu ene ontasuna!
Oi zer dohain ezin prezatuzkoa
Huna Jesus, ene zoriona (*bis*).

2

Sinhesten dut, ene Salbatzailea,
Zu zarela otsian emana,
Zeru gorenean zaren bezala
Majestateguz guzia bethea.

3

Jesus ona saindutasuna bera
Nola izan ni zure egoitza,
Nola beraz bekhatore tristea,
Errezibi ene Jaun handia.

4

Zutan, Jesus dut ene esperantza,
Ah! zuk hazten dautazu bihotza,
Hazkartua zure gorphutz sainduaz,
Eta zure odol sakratuaz.

5

Zure oinetan emaiten naiz ahuspez,
Urrikitan ene bekhatuez,
Aithortzen dut errebe! bat naizela,
Orhoit zaite ene Aita zarela.

6

Sinhesten dut, amodiozko Jauna,
Zu zarela aita hobereana,
Deusik hemen, zu baino maiteago
Duena da urrikaltzeko.

7

Jesus ona noiz zaitut pagatuko,
Ez dut deuzik, zuri bihurtzeko,
Nitan balitz zure gogorakorik
Ah! zuretzat litazke gogotik.

8

Bekhaturik sekulan gehiago,

Ez sekulan, hil, hil lehenago
Jauna, zure graziaren laguntzak
Hazkartuko tu ene agintzak.

9

Lauda, lauda zeruko Aingeruak,
Zuek ere dohatsu guziak
Lauda guziz zuk, oi! ama Birjina ona
Zure semearen ontasuna.

10

Hasi nahi naiz zuretzat bizitzen
Bethikotzat natzaitzu emaiten
Erre zazu beraz ene arima
Amodioz zuretzat, Jaun ona.

HUNA BILDOTS EZTIA

Errepika

Huna bildots ezitia,
Egiazko ogia,
Zerutik da jautsia
Dugun adora.

1

Da gur' Artzain ona,
Kreatzailea,
Aita hoberena,
Salbatzailea.

2

Ostian zarela
Dugu sinhesten;
Zeruan bezala
Hor zu khausitzen.

3

Adoratzen zaitut
Jesus ezitia.
Othoi emadazut
Fede bizia.

4

O Bihotz maitea,
Deitzen gaitutzu;
Gutan egoitea!
Bilhatzen duzu.

5

Eskaintzen derautzut
Ene bihotza.
Othoi bero zazu,
Ezen da hotza!

6	Gero maithatzeko
Ene desira da	Zure gorthean!
Zu maithatzea,	
Maithatzean baita	9
Choilki bethea.	Zoin naizen flakoa
	Ikhusten duzu!
7	Mana zerukoa
Bethe, zazu, Jauna,	Azkar nezazu!
Ene desira!	
Nik nahi dudana,	10
Jesus, zu zira!	Horra non heldu den
	Gaitezen ichil!
8	Prest egon gaitezen!
Zaitut maithatuko	Hemen da hurbil!
Orai lurrean,	

ZERU GORENETARIK

- 1
Zeru goreneta rik mirakuilu handia,
Aitaren eskuinetik hemen da jautsia.
Jesus, Jesus.
- 2
Zeruko aingeruak lurrerat jauts zaitezte,
Hegalez estaliak adora zazue,
Jesus, Jesus.
- 3
Grazia dibinoak gutarat hedatzazu,
Bekhatore guziak, gomberti gaitzazu,
Jesus, Jesus.
- 4
Zeruko Erregea ogiaren itchuran,
Guretzat estalia, dago aldarean
Jesus, Jesus.

NAHI DUZUE JAKIN

1

Nahi duzue jakin nere gutizia,
Jainko onarentzat da ene min guzia,
Ene baithan nago pensatzen noiz
Ikhusiko dudan ene Jainkoa,
Ezin bertzela biziz, ah! hiltzerat noha.

2

Hura dut bethikotzat ene bihotzean;
Hartaz landa ez duket phausurik lurrean.
Haren gana noha lasterrez,
Harentzat da osoki ene gogoa!
Ezin bertzela biziz, ah! etc.

3

Haize alde untzi bat ez doha porturat
Hain laster, ez chori bat bere ohatzerat,
Nola ni janhari hartarat,
Harentzat dudan amodioz, bainoha
Ezin bertzela biziz, etc.

BIZIRIK NAIZ BAINAN EZ

1

Bizirik naiz, bainan ez, Jainkoan dut bizia;
Orai, hark hazirikan, hartan natza guzia.
Hura zeruan beharrez hiltzen naiz ezin hilez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

2

Amodio garbi bat sarthu zait bihotzean,
Ene Jainkoarekin bat egin naizenean;

Ahitua haren minez,
Hiltzen naiz, etc.

3

O arrasta maitea, hil nadintzat emana,
Bethiko zoriona berekin dakharkena!

Ukhitua haren kolpez,
Hiltzen naiz, etc.

4

Akhaba zazu, Jaun ona, agonia luze hau;
Ezen, zu gabe biziz, bihotzak ezin dirau;

Azkenekotz, zure minez,
Hiltzen naiz, etc.

HUNA JESUS BILDOTS

1

Huna Jesus, bildots amultsua,
Gure gatik sakrifikatu dena,
Bekhatutan bazare, Kristaua, goardia,
Ongi! ez hurbil hunen gana!

Errepika

Jauna, zure errezebitzeko
Behinere ez naiz digne izatu;
Bainan ene ongi sendatzeko,
Zure hitz bat askiko da; errazu.

2

Erran duzu janhari zarela,
Zure gana Jesus ona, naiz heldu;
Badakizu menturatzen naizela,
Zeren nauzun zeronek gombidatu.

3

Aldarean dago Jesus ona,

Ogiaren iduriz goibeldurik;
Begiz ikhus ez dezakedana
Maitatzen dut, hor dela sinhetsirik.

4

Orai Jesus ene bihotzerat
Ethorri zait; hau da besta handia!
Jaunak bere gorphutza jaterat
Emandio gizonari guzia.

5

Ah! zer esker bihurturen dautzut?
Zembat maite nauzun hemen da ageri,
Ordainez nik maitaturen zaitut,
Mundu huntan bizi naizeno, bethi.

6

Jesus ona, zer galdetzen duzu?
Hemen naiz prest zure obeditzera;
Bihotza zuk ikhusten dautazu;
Bortcha zazu zure zerbitzatzera.

7

Ez naiz, Jauna, zu gabe deus ere;
Haragiak bethi nau bentzutuko;
Ene baithan beraz bethiere
Egon zaite, ene sustengatzeko.

LAUDA ZAGUN

1

Lauda zagun misterio handia,
Jainko Jauna ostian estalia;
Zuek Aingeruek, zeruko gorthea.
Adora zazue gure Erregea, gure Erregea.

2

Jainko gizon, gure Salbatzailea,
Mundu, zeru, guzien egilea,
Jauts zaite zerutik gure laguntzerat,
Gure amultsuki benedikatzerat, ben, etc.

3

Amodio, loria imortala
Trinitate sainduak dituela :
Ohore hirurei batasun berean,
Orai eta bethi eternitatean, eter... etc.

OI! MIRAKUILU GUZIZ

1

Oi! mirakuilu guziz espantagarria!
Ogiaren iduriz Jesus estalia!
Hura dut adoratzen aldare gainean;
Hura bera dut jaten komunionean.

2

Ene begiek Jesus han ez duke ikhusten,
Gorphutzeko sentsuek ez dute sentitzen;
Bainan, duda gabe dut han dela sinhesten;
Fedeak argiturik, han dute ezagutzen.

3

Jesusek egin zuen azken afaria,
Janharizat emanik bere haragia;
Haragi saindu hura jaten dut nik ere;
Hura janik uste dut bizi bethiere.

4

Kurutzefikaturik, enetzat hil dena,
Lorioski phizturik, zerurat igana;

Hura da sakramendu hortan ezarria;
Hura bera lurrean ene janharria.

5

Biziaren arbola guziz aiphatua,
Baratze dohaxuan jaunak landatua,
Aurkhitzen da neuretzat komunionea;
Nik han dut edireiten ene bizitzea.

6

Israelek jan zuen desertuan mana,
Gostu guziak bere baithan zituena;
Jesusen gorphutza da neure janharria,
Desertu huntan ene kontsolagarria.

7

Jainkoaren mendirat izan zen Eliaz,
Sainduki borthizturik jan zuen ogiaz;
Jaten dut aldareko ogi sakratua;
Hartaz nik ardietsi uste dut zerua.

8

Urerat du lehia orkhaitz nekhatuak,
Beroz eta ihistariz betan penatuak;
Hala dut desiratzen, Jauna, zure ogia :
Othoi, sasia zazu ene gutzia.

9

Choriek badituzte beren ohandzeak,
Urzo tortoilek ere non eman umeak;
Zure aldareten da ene iheslekhua;
Nik han dut edireiten ene sosegua.

OI! ZER OGI DUT IKHUSTEN

1

Oi! zer ogi dutikhusten	Zeru gorenetik jausten.
Gure aldaretara	Arimen bazkatzera.

Errepika

Bihotz khartsua amul-
Ene janhari zare [tsua,
Bilhakatzen, ordainez
Nola zaitut maithatzen.

2

• Jaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen,
Oi! hau da misterioa!
Gizona Jainkoztatzen!
Bihotz khartsua, etc.

3

Enekin bat egitea
Duzu bada bilhatzen!
Zer duzu, Jesus maitea,
Ene baithan aurkhi-
[tzen?

Bihotz khartsua, etc.

4

Hau da neure zoriona!
Zembat ontasun betan!
Salbatzaile guziz ona,

Zer! nik, zu ene bai-
[than!

Bihotz khartsua, etc.

5

Aitetan den hoberena
Aithortzen dut zarela,
Zu maite ez zaituena
Bizirik hila dela.
Bihotz khartsua, etc.

6

Jaun ona, zure egoitza
Zeronek zazu garbi;
Bertzela zure emaitza
Oi! nola errezibi?
Bihotz khartsua, etc.

7

Amodio sakratua.

Egizu gau, egunez,

Izan nadin sustatua

Zure khar bizienez.

Bihotz khartsua, etc.

ZERUTIK JAUTSI ZARE

1

Zerutik jautsi zare biktima garbia,
Zu zare sakramendu, zu zare ostia,
Arimen janharia, sakrifizioa;
Bata nola bertzea, Jesus dibinoa. (*Bis.*)

2

Ogia da itzultzen zure gorphutzera,
Arnoa kambiatzen zure odolera :

Contsekracionea han duzu obratzen;
Zure botherea da guziz han agertzen. (*Bis.*)

3

Manatu izan duzu azken afarian,
Kurutzean guretzat hiltzeko bezperan,
Zure gorphutz garbia eta sakratua
Izan zadin aphezez bethi ofritua. (*Bis.*)

4

Menderen fineraino, zutaz orhoiturik,
Hori eginen dute, kharrez sustaturik;
Fede bizi batekin gaizkitzu hurbiltzen,
Zurekin izaitea dugula galdetzen. (*Bis.*)

5

O! Jesus aldarean enetzat emana,
Ene janhari gozo, ostia zarena,
Eman duzu bizia arimen onetan;
Oi! noiz naiz gozatuko zutaz zeruetan! (*Bis.*)

SINHESTEN DUT

Errepika

Sinhesten dut, sakramendu sainduan,
Jesus ona, zu zarela ostian,
Sinhesten dut, sinhesten dut.

1

Jesus Jauna, oi ene Nausia,
Amodioak zaitu hola ezeztatu.
Ni ere ordainez zurea naiz guzia
Nahi zaitut bethi ere maithatu.

2

Jainko guziz puchant eta handia,
Ene bekhatuek naute ahalgetzen,

Errezebi zazu nik dudan urrikia,
Bihotzetik ditut oro hastiatzen.

3

Jauna, zure hitz bakhar bat aski da,
Bekhatutik arras gu garbitzeko,
Errazu hitz hura, mediku dibinoa,
Aski izanen da gure sendatzeko.

OHORE AMODIO

Errepika

Ohore amodio
Sakramendu sainduan,
Jesus Jaunari, ohore amodio,
Orai eta bethi.

1

Jesus handia, hor goibeldua
Fedeaz zaitut hemen ikhusten,
Maitatzen zaitut et' adoratzen
Aldare hortan Jaun amultsua.

2

Zerutikako ogi saindua,
Zu zare flakoen indar handia,
Senda nezazu, azkar nezazu
Ereman dezadan bitoria.

3

Orai lurrean molde gordean
Gurekin zare, ostia maitean,
O Jesus noiz zaitut ikhusiko
Bekhos bekho, zeru ederrean!

JESUS ONA

Errepika

Jesus ona — Oi gure zoriona
Aldarean zare — Gure gatik bethi ere

edo

Maitatua — Eta adoratua
Jesus izan zaite — Bihotz guzietz bethi ere.

1

Jainko handia — Zer grazia
Misterio espantagarria
Ostia huntan — Jesus ogiaren idurian.

2

Zeruetarik — Gure gatik
Jautsi zare Aitaren aldetik
Gu laguntzeko — Amultsuki benedikatzeko,

3

Zer ikhusgarri — Gizonari
Emaiten zare zuhaur janhari
Haren hazteko — Sekulako biziartzeko.

4

Zure ongiak — Ontasunak
Nola pagatuko tu gizonak ;
Zer amodio — Dugu, Jauna, zure maitatzeko!

5

Jauna zuretzat — Bethikotzat
Emaiten gare giren guziak ;
Gure bihotzak — Amodioz bite sustatuak.

6

Dezagun maita — Eta lauda ;

Jesus Salbatzaile amultsua
Kanta, Kristauak — Gure Jainkoaren ontasunak

7

O Aingeruak — Dohatsuak,
Jainkoari guretzat eskerrak ;
Ohore bethi — Amodio Jesus maiteari.

EGUNGO TRIONFA

1

Egungo trionfa huntan
Jesus da gurekin baltsan
Emana ostia huntan
Zeruan delarikan
Hemen da sakramenduan
Apezaren eskuetan.

2

Satanen bentzutzailea
Zu zare, Jesus maitea,
Ostia miragarria.
Benedika gaitzaizu,
Othoizten plazer baduzu,
Hori galdeiten dautzugu.

3

Bethiereko loria
Eman bekio Aitari,
Gure kreatzaitleari
Seme gizon eginari
Izpiritu Sainduari
Trinitate Sainduari.

MIRAKUILU

1

Mirakuilu guziz miragarria
Jesus ona zerutik jautsia
Aldarean zeruetan bezala
Jainko-gizon guretzat zaudena
Sinhesten dut eta sinheste hortan
Izanen naiz bizian hiltzean
Adoratzen zaitut, o Jainko Jauna
Miresten dut zure ontasuna.

2

Zutan, Jesus, dut ene esperantza,
Ah! zuk bozten dautazu bihotza
Hazkartua zure gorphutz Sainduaz
Eta zure odol sakratuaz.
Izanen dut hemen zure grazia
Zeruetan bethiko loria.
Oi zer dohain ezin prezatuzkoa,
Naizen gatik, helas! hain gaichtoa.

3

Ikhusten dut, amodiozko Jauna,
Zu zarela aita hoberena.
Deusik hemen zu baino maiteago
Duena da urrikaltzekoa,
Hasi nahi naiz zuretzat bizitzen
Bethikotzat nitzaitzu emaiten
Erre zazu beraz ene arima
Amodioz zuretzat, Jaun ona.

ZER ZORION

1

Zer zorion, zer zorion ! oi hau da fagorea!
Ikhusten dut, ikhusten dut Jesus Salbatzailea
Aldarerat zerutik jautsia gure gatik
Gu bisitatzeko, arimen hazteko, arimen hazteko-
Misterio miragarria, Jainko bat gure janhari,
Aingeruen hazkurria emana gizonari;

Dugun, dugun ahuspez adora

Jesus, Jesus Salbatzailea,

Gure Erregea, gure Erregea.

2

Heda zatzu, heda zatzu benedizioneak,
Emagutzu, emagutzu, othoi, zure graziak.
Humiliaturik, ahuspez emanik,
Othoizten zaitugu, urrikal zaizkigu, urrikal zaiz
[kigu.

Bethi zaitugu maitaturen, Jainko maitagarriena
Eta zaitugu laudaturen, Aitarikan hoberena.

Lauda, lauda dezagun goraki

Jesus, Jesus Salbatzailea,

Gure Aita ona, gure Aita ona.

3

O zerua, o zerua, oi hau mirakuilua!
Jesus Jauna, Jesus Jauna aldarerat jautsia.
Gure bisitatzeko, gu benedikatzeko
Aldare gainetik, ostia hortarik, ostia hortarik,
Zeruko aingeru guziak, zerafin, arkanjeluak,
Hegaldaka gutarterat zatozte kantatzerat.

Susta, susta detzagun bihotzak,

Kanta Jesusen laudorioak,
Haren ontasunak, haren ontasunak.

OI ZER ZORIONA (QU'ILS SONT AIMÉS)

Errepika

Oi zer zoriona ene bihotzean dagoena.
Oi zer zoriona, zuk emanik, ene Jesus Jauna,
Zoriona, zuk emana, Jesus Jauna (*bis*).

la la la la sol 1 fa la sol
Urrun zaitezte, munduko plazerak,
Urrun ene pentsamendutarik;
Jesusekin tut atsegin bakharrak,
Ez, othoi, ni separa hetarik.

2
Hurbildu naiz mahain saindu hortarat,
Huna zer den orduan gertatu.
Jesus jautsi da ene bihotzerat,
Hartaz nahi duela jabetu.

3
Jesus nitan eta ni Jesusekin,
Biek bat dugu orai egiten.
Zer zoriona! nahi nuke jakin
Jesusentzat amodioz urtzen.

4
Ene Jesus, Jainko eta Gizona,
Jainko guziz maitagarriena;
Zarelakotz hor neretzat emana,
Zurea naiz ni ere naizena.

5
Jesus gu baithan delarik egoiten
Zer graziak deraizkun emaiten

Gu ere hil eta lorios pitz gaiten
Bera zauku janhari emaiten.

6

Hola bada Jesus ona gurekin
Komunionean bat egiten,
Giristinoak, arta handirekin
Mahain Saindurat hurbil gaiten.

7

Ez dugu, Jauna, zure ikhustez
Baizen guk bertze plazerik;
Oraitik zurekin bat egitez
Mundu huntan bertze desirarik.

8

Lauda zuek, zeruko aingeruak,
Zuek ere, dohatsu guziak,
Lauda guziz, zuk, o Ama Birjina,
Zure semearen ontasuna.

KRISTAUAK, APHAL ZAITEZTE

1

Kristauak aphil zaitezte (*bis*)

Hemen dugu, hemen dugu zeruko errege (*ter*),
[Jesus.]

Errepika

Jesus Salbatzailea, o fagorea

Aldarerat orai jautsi da, dezagun adora.

Orai jautsi da, dezagun adora.

2

Zeruko goratasuna (*bis*)

Aphaldurik (*bis*) huna Jainko Jauna (*ter*) Jesus.

Bethikotz, Kristau maiteak (*bis*)
Ofritzagun (*bis*) Jesusi bihotzak (*ter*) Jesusi.

ADORA DEZAGUN

1

Jesus maitea zen azken afarian,
Bera eman nahiz lehia handian;
Guretzat zelarik hiltzerat abian,
Amodioz zuen bihotza gailandian.

Errepika

Adora dezagun Jesus Jainko Jauna
Sakramendu huntan gurekin dagona.

2

Apostolueri erraten diote :

« Ni gaur saldua naiz; bihar hilen naute :
Aitaren ganako dembora zait bethe;
Beha orai zembat zaituztedan maite. »

3

Ogia harturik, mintzo da Jainkoa :

« Hau da ene gorphutz zuek jatekoa. »
Khambiarazten du orobat arnoa :
« Hau da ene Odol, zuen prezioa. »

4

« Jan, edan zazue guziek huntarik,
Zuenkin bat nadin izan orai danik :
Egizue gero egin dudan hau nik,
Ni ere hitz berez gogoan emanik. »

JESUS ONA (MON BIEN-AIMÉ)

1

Jesus ona, noiz zare agertuko?
Gau luzea, othe haiz bethiko?
Suntsi hadi — Noizbeit niri;
Zato, Jesus, ene zoriona!
Zato laster, zu hain baitzare ona! (*Bis.*)

2

Egunak du argi choragarriaz
Bethe oro mundu hau loriaz!
Ni zuk nauzu egin dohatsu;
Ezin nago, nahi naiz hegaldatu,
Jesus ona, zurekin bat juntatu. (*Bis.*)

3

Huna non den egoitza sakratua,
Jainko Jaunak beretzat hautatua!
Han janari — gizonari!
Misterioz amodioz bethea
Zer zoriona zure maitatzea! (*Bis.*)

4

Ikhusten dut ene Jesus hurbiltzen,
Ostian da aldaretik aphaltzen:
Ene gana! — Jesus Jauna!
Hets begiak, ez beha ikhusteko,
Fedea da gu hemen gidatzeko. (*Bis.*)

5

Erregeen Erregea ni baithan
Hemen dago, o Jauna, zer egoitzan!
Ikhusgarri — miragarri!
Zerk zeronek, Jauna, nere bihotza
Zazu susta, zeren baita hain hotza! (*Bis.*)

6

Ahalgetan, Jaun ona hemen nago,
Nik ordainez zer duket bihurtzeko?
Miseria — Naiz guzia.
Nigarretan dena ikhus nezazu,
Urrikari nitaz izan ezazu. (*Bis.*)

7

Jesus ona, zuk nauzu khambiatzen,
Sentitzen dut, bertze bat naiz bilhatzen;
Zurea naiz — Ni deus banaiz;
Zurekin bat bethikotz egoitea,
Oraidanik horra nere chedea. (*Bis.*)

O JESUSEN BIHOTZ SAMUR

Errepika

3

O Jesusen Bihots sa-
Enetzat idekia, [mur,
Othoi, emazu neurean
Zu ganako lehia.

Jasanen dut kurutzea
Gogotik, zuk bezala;
Sekulan salbamendu-
[rik
Ezin duket bertzela.

1

Ikhusiz zure burua
Arrantzeez bethea
Niholere ez dut nahi
Lore pean neurea.

4
Egizu onhets dezadan
Zuk onhesten duzuna;
Dezadan higuin osoki
Higuingarri zaitzuna.

2

Kurutzea dakharkezu
Zure bihotz garbian;
Nik ere dut ekharriren
Neurearen erdian.

5
Irakasten darotazu
Humil, ezti izaiten,
Ene jaidura gaichtoak
Artharekin zehatzen.

JESUS ONAREN BIHOTZ MAITEA

1

Jesus onaren bihotz maitea,
Zu zare neure guzia;
Bethi da zure-ganat izanen. } *bis.*
Bakharrik ene lehia.

2

Norck du erranen ez dakiela
Bihotz hartarat bidea?
Soldaduaren lantzak daroku } *bis.*
Ideki hango athea.

3

Lore suerte guziak baino
Ederrago zarelarik,
Zer gatik, bihotz maitagarria, } *bis.*
Arrantzez zare betherik!

4

Amodioaz amo lioa
Pagatzea bada munduan,
Arrazoinekin duzu n erezi
Neurea sakramenduan.

5

Orai artean ibili banaiz
Ihesi gurutzetarik,
Orai naiz zure besoetan
Bizi bethikotz josirik.

6

Ene bihotza munduarentzat
Egon bada idekia,
Zu hartuz orai, atchikiren dat
Kreaturentzat hetsia.

BIHOTZ JESUS MAITEARENA

1

Bihotz Jesus maitearena,
Graziaren ithurria,
Hemen naiz, Bihotz samurrena,
Zure ganat ethorria.
O ezin aski laudatuzko
Bihotz garbi, sakratua,
Noiz zaitut bada maithatuko!
Zerk nauka sorhaitotua.

2

Bihotz enetzat sustatua,
Berant zaitut ezagutu;
Bihotz ezti, preziatua,
Helas! ez zaitut maitatu.
Alferretan nauzu bilhatu,
Bihotz bethi zabaldua,
Zure ganik naiz apartatu,
O! hau da zoramendua!

3

O bihotz nahikarazkoa,
Munduak nau enganatu;
Tresor, guzien gainekoa,
Ez zaitut aski prezatu.
Ala baitzait erhokeria
Zuri ez jarraitzea!
Bihotz bethi maitagarria,
Zu ez funski maitatzea!

4

Bihotz, ihesleku segura
Kreatura guzientzat :

Amodiozko gaindidura,
Zer egiten dut zuretzat?
Bihotz, guziz ona zarena,
Hasten naiz zure maitatzen :
Zu gabe bizi daitekena
Osoki zait urrikaltzen.

JESUSEN BIHOTZ MAITE

1

Jesusen bihotz maite adoragarria,
Gure bihotzak beite zu ganat lehia;
Zu gabe ezin daite dolhatsu bizia.
Gu maitez sutan zauden bihotz sakratua!
Bethi zare izanen gutaz maitatua.

2

Bihotz ezti, umila, lantzat kolpatua!
Diozu zutan dela gure deskantsua,
Zutañ izan dadila gur'ihes lekhua!

O JESUSEN (CŒUR DE JÉSUS)

1

1^{er} C. O Jesusen bihotz maitagarria,
Amodioz bethi gainditua;
O grazia guzien ithurria,
Zu zare zu gure ihes lekhua.

2^e C. Bihotz hortan oraino flako denak
Kausitzen du bere sosegua;
Tristezian eta penetan denak
Aurkhitzen du kontsolamendua.

- 3^e C = Zuek, dio bihotz aberatsenak :
Penatuak bizi zaretenak,
Ene haurrak, zatozte ene ganat;
Nik arinduko tut zuen penak.
- 4^e C = Entzun dut zure gombidu ezta
Ikhusten dut zein den maitagarria
Zein gozoa den zure lokharria
Zein arina zure uztarria.

- 5^e C = Zuk erraiten daukuzu : noiz artean
Ene ganik urrun, o gizona,
Bilhaturen duk bethi gezurrean
Bekhatuan hire zoriona?
- 6^e C = Zu izanen zare ene bizia,
Bethi, bihotz adoragarria,
Ontasuna, esperantza guzia,
Zu bakharrik ene gutizia.

BIHOTZ KHARTSUA

Errepika

Bihotz khartsua,
Jaun amultsua,
Zorion guzizkoa,
Susta gaitzatzu,
Gutan pitz-azu
Zu ganako amodioa (*bis*).

1

Berant zaitut ezagutu,
Oi Salbatzaile dibinoa,

Berantegi dut sentitu
Helas! zure amodioa.

2

Zure karitateari,
Oi hau da zorigaitza,
Berant diot ihardetsi
Berant eman ene bihotza.

3

Dembora iraganetan
Egin tudan gaizki handiak,
Jauna, zure odolean
Garbi, borra zatzu guziak.

4

Zure ontasun handian
Jesus, dut ene fidantzia
Zure miserikordian
Ene esperantza guzia.

5

Ez dut zure ikhustez
Baizen bertze gutiziarik,
Zurekin bat egitez
Mundu huntan bertze desirarik.

6

Bozik nago partitzera
Mundu enganakor huntarik
Jaunarekin juntatzera
Nohala laster pentsaturik.

DUGUN BETHI

Errepika

Dugun bethi lauda
Jaunaren ontasuna (*bis*).

1

Ohore aingeruak,
Zuen Jainkoari,
Esker handienak
Nausi guzizkoari.

2

Oi zein den Aita ona,
Nola hain ezdeusak
Gaituen jasaiten
Esker gabe gaichtoak.

3

Artzain on bat bezala,
Gal gaiten beldurrez,
Ondotik dabila
Bere ahal guziez.

4

Etsaiak maluruski
Gintuen atzeman,
Amarruz ezarri
Ifernuko bidean.

5

Bainan Salbatzaileak
Gaitu libraturen,
Satanen gatheak
Laster porroskaturen.

6

Gu baithan du egiten
Orai bere egoitza,
Dohainez bethetzen
Amultsuki bihotza.

7

Haren eztitasunak
Ni bainau hunkitzen,
Haren amodioak
Osoki nau bethetzen.

8

Jainkoa da izanen
Ene min guzia
Eta arimaren
Graziazco bizia.

ZATO, JAUN

Zato, Jaun amultsua, biziaren bi... ithurria,
Mesias dibinoa, zato, zato, zato.

1

Ah! lehia ethortzera,
Zato lastor gutartera
Ifernutik libratzera...

2

Duela lau mila urthe
Guri agindua zare

Zato beraz, ager zaite.

3

Iguzkia, noiz ilkiko
Zare gu argitzeko,
Ilhumbetarik khentzeko?

4

Satan beltzak hersten gaitu,
Zuk libraturen gaitutzu,
Esperantza zutan dugu.

5

Beha gure miseriak,
A! ez adi justizia.
Bainan miserikordia.

6

Entzun zatzu auhen minak
Bai othoitzak, bai nigarrak
Hambat demboraz eginak.

7

Zuk gaitutzu salbatuko,
Ifernutik urrunduko,
Zeruan sarraraziko.

8

Zato beraz, Jaun ona
Zato, gure ontasuna
Eta gure zoriona.

O! EGUBERRI

1

O! Eguberri gaua,
Bozkariozko gaua,
Alegeratzen duzu
Bihotzean Kristaua.

2

Mundu guzia duzu
Zorionez bethetzen.
Zeren zuk baidiozu
Mesiaz dela sortzen.

3	Abreak mendietan, Hegaztinak airean.
Gau ilhunean ez da Ikhusten iguzkirik; Huntan agertzen zaiku Mirakuiluz ilkhirik.	9
4	Gauza guziak dire Orai alegeratzen; Orobat egiterat Gaituzte erakhartzen.
O! gau desiratua, Argia duzu phiztu, Zeinak mundu guzia Behar baitu berritu.	10
5	Ifernuko ostea [tzen, Gau huntan da trista- Haren zentzatzaila Zeren den orai sortzen.
Argizagiak dire Bozkarioz dantzatzen, Dutela ohi baino Gehiago argitzen.	11
6	Idolak aldaretan Betan dire muthutu; Aztiek arrazoina Laster dute galdetu.
Aingeru onak berriz Hasi dire kantatzen, Bozterat dituztela Tristeak gonbidatzen.	12
7	Bertzerik ez dirote Deusere ihardetsi, Haur batek dituela Baizik ichil-arazi.
Errepikatzen dute Maniuretez artzainek, Hekieri diote Ihardesten larrainek.	13
8	Ichildu behar zuten, Guk ordainez kantatu Zorionean dela Jainko Semea sorthu.
Arrainak hari dire Jauz ika ur barnean,	

III^{en} NOELAK

†
Oi! Bethleem!

Ala egun zure loriak,
Oi! Bethleem!
Ongi baitu distiratzan!
Zu ganik heldu den argiak
Bethetzen tu bazter guziak
Oi! Bethleem! (*Bis.*)

2

Zer ohore!
Ala baitzare goratua!
Zer ohore!
Zer grazia! zer fagore!
Zeruaz zare hautatua,
Jesusen zare sor lekhua;
Zer ohore! (*Bis.*)

3

Azkeneko
Hor heldu da Jesus justua,
Azkeneko
Gu dohatsu egiteko;
Hetsi nahi du ifernua,
Guretzat zabaldu zerua,
Azkeneko. (*Bis.*)

4

Gure gatik
Jainko bat botherez bethea,
Gure gatik
Jausten da zeru goratik;
Bai, sortzen da Jesus maitea,
Biktima notharik gabea,
Gure gatik. (*Bis.*)

5

Maniateran
Datza haurrik aberatsena,

Maniateran!

Nork zuken sekulan erran
Zeru, lurren Jabea dena
Ikhusiren zela etzana (*Bis*).
Maniateran? (*Bis*).

6

Artzainekin

Heldu naiz zu gana lehiaz,
Artzainekin,
Hek bezala nahiz egin,
Adoratzen zaitut, Mesiaz,
Eta maite bihotz guziaz,
Artzainekin. (*Bis*.)

7

Ez dut deusik
O Jesus! zuri eskaintzeko,
Ez du deusik,
Bihotz hobendun bat baizik:
Eskerren zuri bihurtzeko,
Hambat emaitzen pagatzeko
Ez dut deusik. (*Bis*.)

IV^{en} NOELAK

Errepika

Atzar gaiten, atzar lotarik,
Gau huntan da Jesus sortzen;
Amodioak garaiturik,
Gure gatik da ethortzen.... *Berriz*.

1

* Zu zerurat nahiz altchatu
Jesus jausten da lurrerat;

Heldu da, gu nahiz salbatu,
Gorphutz hilkor bat hartzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

2

Ala haren laudorioak
Behar baitigu kantatu!
Ala gure bozkarioak
Behar baitu seinalatu!
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

3

Bekhatua, munstro tristea,
Hoa hire leze beltzerat;
Ethorri duk Jesus maitea
Hire obren urratzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

4

*Zerk gaitu bada gibelatzen
Hel gaiten, hel Jesus gana;
Bekhatoren gatik da sortzen,
Saindutasun bera dena.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

5

Ikhusgarri mirestekoa!
Oi! hau da humiltasuna!
Zeru beraz goragokoa
Maniateran da emana.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

6

Erregen Errege delarik,
Ez du nahi distiratu;
Ez du nahi palaziorik,

Heia tchar bat du hautatu.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

7

Hotzaz ere da penatua

Sasoinen Manatzailea;

Guziez datza gabetua

Guzien Kreatzailea.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

8

Bi bestia ditu laguntzat;

Horra Jesusen gorthea;

Lasto guti bat etzazantzat,

Oi! hau gauzaren dorphea!

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

9

Etsemplu miragarrienaz

Jesusek gaitu argitzen,

Amodiorik khartsuenaz

Bere gana gonbidatzen.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

10

✠ Amodioak du sustatzen

Haren bihotza guretzat :

Has gaiten, has haren maitatzen,

Guduka gaiten harentzat.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

GAU ERDI DA (MINUIT, CHRÉTIENS)

1

Gau erdi da; orok, giristinoak,

Jesus Haurra, dezagun adora;

Gau erdi da, eta gure Jainkoak
Du igortzen Berboa lurrera.
Mundua da bozkariotan sartzen.
Ikhusirik Jesus gaur sortua;
Eguberrik du gizona salbatzen,
Kanta, kanta besta dohatsua (*bis*).

2

Oro ginen etsaiaren azpian
Lehertuak, oi zorte tristea?
Ifernuak bai bere malezian
Zaukun khendu zeruko gorthea.
Bainan egun gure gathe dorphea.
Haurtto batez da porroskatua;
Eguberrik du salbatu mundua.
Kanta, kanta Jesusen sortzea (*bis*).

3

Lasto pean hantche dago etzana,
Begiak tu nigarrez bustiak;
Gure gatik doloretan emana,
Gu nahirik salbatu guziak.
Bekhatoros, baita arima justuak
Bere ganat gaitu deitzen betan;
Orok beraz, bihotzak juntatuak,
Kanta, kanta besta handi huntan (*bis*).

4

Zerutikan gure gatik jautsia,
Pobrezian Jesus da aurkhitzen.
Horrela du eremanen bizia,
Urguilua duela zapatzen.
Aingerua, gu lagun gaitzatzue
Jainkoari eskerren bihurtzen,
Orok betan, orok kanta zazue,
Kanta, kanta Jesus dela sortzen (*bis*).

O JESUSEN (PERÇANT LES VOILES DE L'AURORE)

1

O Jesusen bihotz khartsua
Zu zare nere guzia;
Zure alderat sustatua
Izanen da bethi nere bizia.

Errepika

Aingeruen amodioak (*bis*)
Erre gaitzala guziak
Jesusen ongi laudatzeko,
Maitatzeko, benedikatzeko (*bis*).

2

Oi! zu bihotz aberatsena
Graziaren ithurria
Hemen naiz bihotz samurrena
Zu ganat zerbeit bilha ethorria.

3

Alferretan nauzu bilhatu,
Bihotz bethi zabaldua;
Zure ganik naiz apartatu,
Zer erhokeria, zer zoromendua!

4

Oi bada zer erhokeria
Zuri ez jarraikitzea;
Bihotz betti maitagarria,
Zu ez bethiere zinez maitatzea?

5

O Bihotz nahikarazkoa,
Munduak nau enganatu:

Oi ontasun egiazkoa
Ez zaitut ez, helas, nik aski maitatu.

6

Bihotz ihes lekhu segura
Kreatura guzientzat;
Amodiozko gaindidura,
Zer erranen dut, zer eginen zuretzat?

7

Bihotz guziz ona zarena,
Hasten naiz zure maitatzen;
Zu gabe bizi daitekena
Osoki zait niri hura urrikaltzen.

8

Amodioaz amodioa,
Munduan bada pagatzen;
Nola bada, gizon zoroa,
Hire bihotza diok errefusatzen?

9

Othoi, errezebi gaitzatzu,
Jesus, zure bihotzean;
Lagun, susta, maita gaitzatzu,
Orai eta bethi, eternitatean.

GAU ERDITAN (GLORIA IN EXCELSIS)

1

Gau erditan aingeruek
Betbetan dute kantatzen
Eta aldeko mendiek
Baltsan dute ihardesten.

2

Errazue, artzain onak

Norentzat besta horiek?
Nork tu merezitu kantak,
Zertako kantu horiek?

3

Horiek dute erraiten
Jesus Haurra dela sortu,
Behar garela erraiten
Alegrantzietan egun sartu.

4

Elgar aditurik, goazen
Mesiasen ikhusterat,
Jesusi gure bihotzen
Eta bozen eskaintzerat.

5

Ó Jesus Salbatzailea,
Orok zaitugu laudatzen;
Jesus gure erregea
Guziek zaitugu deitzen.

Ven NOELAK

Kristo guziez dezagun egun adora... *Berriz.*

1

Hauche da izarra agertzen dena!
Berri bat dakharke den handiena,
Jesus maitearen sortzearena.

Kristo guziek, etc.

2

Hirur erregeak ditu gidatzen
Jesus haurra gana dire hedatzen
Presentekin dute han adoratzten.

Kristo guziek, etc.

3

Myrra, isentsua eta urhea
Ekhartzen dautzute, Salbatzailea,
Zuri eskaintzeko present bedera,
Kristo, etc.

4

Gaspar Erregeak, Jainko handia,
Adiarazten du myrraz egia,
Gizona zarela larruz beztia.
Kristo, etc.

5

Baltazarrek, emaiten urhea,
Bai, dio zarela, Jesus maitea,
Errege guzien lehen printzea.
Kristo, etc.

6

Melkhiorek ere du sinhestea,
Dauku isentsuaz eman fedea
Egiaz zarela Jainko Semea,
Kristo, etc.

7

Hitz batez hirurek fede osoa
Badute zarela Jaun zerukoa,
Gizona, Monarka, eta Jainkoa.
Kristo, etc.

8

Izar distirant bat heier egorririk,
Atheratzen tutzu ilhumbetarik,
Zure gana deitzen tronuetarik,
Kristo, etc.

9

Ni ere argitzen nauzu fedez;

Eguizu oraino heien chedeaz
Adora zaitzadan neure aldeaz.

Kristo, etc.

10

Egun egor giuzu izar zurea,
Aurkhi dezaguntzat chuchen bidea
Zu ganat heltzeko, gure jabea,
Kristo guziek dezagun egun adora.

AIRERIK EDERRENETAN

1

Airerik ederrenetan
Dugun orok betan
Kanta Jesusen sortzea,
Haren zerutik jaustea;
Ethorri da gure gana.
Oi zer zoriona!

Pobreak tu gombida-
[tzen
Errege sortu berriak,
Mesias maiteak.

2

Zeruko aingerueri
Eta saindueri [zak,
Juntatzagun gure bo-
Orok anima bihotzak;
Jesusen adoratzerat
Goazen Betlemerat.

4 -
Ez bilha jauregietan
Ez gazteluetan;
Magnateran da etzana,
Hauche da humiltasuna
Derakuna erakusten
Gure gatik sortzen.

3

Utz kitzue, utz, artzai-
[nak,
Zuen arthaldeak;
Zuek zaituzte gaide-
[tzen,

5
Amodioz sustaturik,
Urrikiz betherik,
Dugun egun saindu
[huntan,
Orok gure bihotzean
Errezebi Jesus Jauna,
Salbatzaile ona.

GAUR SORTU DA

1

Gaur sortu da Jesus haurra,
Oi hau zeruaren presenta;
Gaur sortu da Jesus haurra,
Dugun bozkarioz kanta.

2

Auhenak bara detzagun,
Hunkitu dute ja zerua;
Horra non igortzen daukun
Bake hambat agindua.

3

Aingeruec gau erditan
Alegrantziaz derasate :
Jainko bat zaikula sortu
Kanta errepikaz diote.

4

Gorphutz bat Kreatzaileak
Esklabo baten du hartu,
Azkenean hartan berak
Hilez gaitu gu salbatu.

5

Izarretako Jainkoak
Ohetzat du abere aska
Amak hazi beharra da
Zeru lurren bazka dena.

6

Altcha, goazen artzainekin
Jainko denaren ikhusterat
Bihotz khartsu batzuekin
Sehaskan besarkatzerat.

7

Zu guziz goraren semea,
Zu Aitaren distiradura,
Zu othe zare mundua
Ahurrean dagokan hura?

8

Horrela zu gorde arren
Orobat zaitut ezagutzen,
Zu zarela aingeruek
Zaituztena adoratzten.

JESUSEN SORTCEA

1

Dugun alegrantzietan
Kanta Jesusen sortzea,
Gure ahal guzietan
Ohora Jainko semea.

Izan da adoratua;
Ah! gutarik gehienez
Nola da ezagutua.
O! Jesus, etc.

4

O! Jesus, zure graziak
Ganbia gaitzan guziak.

Jesus, negu gogorrean
Ohetzat duzu lastoa;
Nola beraz plazer pean
Dukegu gure gogoa.
O! Jesus, etc.

2

Errepikaz Aingeruak
Entzuten dire kantat-
[zen;

Sortzetik aphaltasuna
Darokuzu predikatzen;
Zer gatik goratasuna

5

Gu ere, loriatuak,
Has gaiten Jauna lau-
O! Jesus, etc. [datzen.

Dugu bada guk bilha-
O! Jesus, etc. [tzen.

3

Jesus erregez, artzei-
[nez

JESUSEN AMA SAINDUA

1

Kanta zagun guziek
Ahalik gorena;
Lauda zagun Maria
Andre handiena,
Jakin zuen zerutik
Zer zen gerthaturen,
Birjina gelditurik,
Zela amaturen.

2

Gure salbamenduaz
Errazu, Maria,
Nork ekharri zarotzun
Zerutik berria?
Gabriel Aingeruak,
Etchean sarthurik,
Jainkoari zeruan
Gu urrikaldurik.

3

Zer Aita eternalak
Zuen gaztiatu?
Gabriel Aingerua
Nola zen mintzatu?
Salutatzen zaitugu,
Birjina Maria,
Grazia da zurekin
Eta Jaun handia.

4

[den
Zein lekhotan zinau-

Hitz hauk aditzean,
Gabriel Aingeruak
Zu salutatzean?
Galilean nindagon,
Herri ederrean,
Ene gelan bakharric
Debozioanean.

5

Gabriel Aingeruak,
Zu salutaturik,
Eman izan zarotzun
Deus bertze berririk?
Kontzebituko duzu,
Zioen, sainduki;
Seme izanen duzu
Jainko bat segurki.

6

Maria, othe zinen
Zure baithan laztu,
Hitz horiez zenean
Gabriel mintzatu?
Bai, ez bainuen nahi
Sekulan ezkondu,
Ez eta Birjinaren
Ohorea galdu.

7

Aingeruak zer erran
Zarotzun, Maria,
Iklusirik zinela

Trublatsu guzia?
Izpiritu Saindua
Da seinalatuko;
Mirakuilu hori du
Berak obratuko.

8

Maria, Aingerua
Zinduen sinhetsi?
Eta nola zinioien
Hari ihardetsi?
Zeruetako Jauna
Dela adoratu,
Haren nahi saindua
Osoki komplitu.

9

Erditzeko dembora
Zenean ethorri,
Eman izan zinioien
Jesus munduari :
Bai, sorthu zen ordutik
Fruitu dibinoa,
Guzien salbatzeko
Zeruko Jainkoa.

10

Erraguzu, Maria,
Haren sor lekhuia;
Ala zen palazio,
Ala gastelua?
Oi! ez zen ez horrela
Munduratu agertu;
Heia hautsi bat zuen
Sor lekhotzat hartu.

11

Nor ethorri zitzaion!
Agur egitera?
Hurbildu zen handirik
Besten emaitera?
Gizon eta emazte
Guti zen agertu;
Esklabo batzu gisa,
Gintuzten largatu.

12

Ez zen bada; Maria,
Bederen artzainik
Jesus adoratzera
Lehiatu zenik?
Bai, artzainak zituen
Lehenik ikhusi;
Hekien bihotz onak
Zituen onhetsi.

13

Erraguzu, Maria,
Bazen erregerik
Zure Seme Jainkoa
Ikhusi zuenik?
Hirur errege ziren
Urrundik hedatu;
Eta bere presentez
Zuten ohoratu.

14

Erraguzu, Maria,
Handitu zenean,
Ea zuten guziek
Maitatu lurrean?

Bai, maite izan zuten,
Bainan ez juduek,
Koleraz, imbidiaz,
Herraz itsutuek.

15

Hitz gutiz laburtzeko,
Errazu, Maria,
Knrutzean itzatu
Zuten Jaun handia?
Ai! bai, itzatu zuten
Jainkoa habean,
Gaizki akusatua
Ohoinen artean.

16

Erraguzu, Maria,

Ea urrun zinen,
Ala hurbil Semea
Ikhusi zinduen?
Haren aldean nintzen
Ongi flakatua,
Nigar khiretsenak
Guzia urthua.

17

O! Birjina Saindua,
Othoizten zaitugu,
Semearen tronuan
Lagun zakizkigu :
Jujatzean mundua
Azken egunean,
Egizu eman gaitzan
Bere eskuinean.

JESUSEN PHIZTEAREN GAINEAN

1

Phiztu da lorios
Jesus hilen artetik,
Igan bitorios
Zerura gure gatik ;
Eta ni munduan
Hila bekhatuan :
O heriotze tristea,
Bekhatutan bizitzea!

2

Nik ere nahi dut,
Jauna, zurekin phiztu ;
Bethi nahi zaitut

Orai danik maitatu
Uzten dut mundua,
Arras bekhatua ;
Ez, ez dut nahi bizirik
Zu zerbitzatzeco baizik.

3

Bekhatoros nintzen,
Ondikozko zorthea!
Orai naiz aurkhitzen
Zurekin, Jaun maitea :
Zu zaitut bilhatzen,
Bakharrik maitatzen ;
Biciaz zait gabetzea

Zure ganik urruntzea	Hobe zu laudatzea :
4	Han sarturen dena
Zein naizen flakoa	Da dohatsuena,
Miletan dut frogatu;	Oi! noiz naiz harat hel-
Baiki, Jaun-goikoa,	[duko?
Maiz zaitut ofentsatu.	Noiz naiz zutaz goza-
Bethikotz naiz galtzen,	[tuko?
Ez bazaizkit heltzen;	6
Mundua zait nausitu-	Usoa bezala [ren,
[ren,	Noiz naiz hegaldatu-
Laster nau eskuratu-	Noiz naiz berehala
[ren.	Zu ganat hedaturen?
5	Gaizkiak uzteko,
On bada munduan	Zurekin phizteko,
Zuri jarraikitzea;	O Jesus! ene guzia,
Legez da zeruan	Othoi, indazu grazia.

KONTZIENTZIAREN EXAMINA

1

Humilki zaitut adoratzen,
Ahuspez zure oinetan;
Jauna, zuk nauzu fagoratzen
Behar ordu guzietan.

2

Orai egidazu grazia
Bihotzaren zundatzeko;
Han den phozoin gaichto guzia
Lehen bai lehen khentzeko.

3

Ikhus detzadan ene faltak
Othoizten zaitut, Jainkoa;

Eta heien ikhuste klarak
Trista biezat gogoa.

4

Hurbildik examinatzerat
Egin ditudan gaizkiak,
Milaka zaizkit aitzinerat
Heldu neure flakeziak.

5

Gogoz, obraz, orobat hitzez
Hautsi tut zure manuak;
Itchurazko bere plazerez
Enganatu nau munduak.

6

Oi! urrikal nakizu, Jauna,
Higuintzen dut bekhatua,
Bakharrik zeren zaren ona,
Ez zeren den Ifernua.

7

Leialki dut begiratuko
Orotan zure legea;
Ez naiz handik aldaratuko;
Hori da neure chedea.

8

Zembat diren urrikaltzeko
Gaizkian oi! daudezenak!
Heientzat daude sekulako
Tormenta latzgarrienak.

9

Zer zuhurtzia orhoitzea
Ifernuco suzko kharrez!
Zeruaren merezitzea
Urrikiaren nigarrez!

ESKERREN BIHURTZEKO

1

Dezagun kanta gogotik ;
Gaiten guziak bozkaria ;
Gure salbatzea gatik,
Jesus, eman duzu bizia.

Bai, bihotzaren erditik
Dezagun kanta gogotik.

2

Dezagun kanta gogotik :
Zure odol preziatua
Ichuri duzu gu gatik ;
Zaren, ô Jesus ! laudatua.
Bai, bihotzaren, etc.

3

Dezagun kanta gogotik ;
Nahiz arimak zeruratu,
Leze beltz ifernukotik,
Jesus, gaitutzu begiratu,
Bai, bihotzaren, etc.

4

Dezagun kanta gogotik :
Jesus dela lorifikatu ;
Hark gaitu egundainotik
Amodio phuruz maithatu.
Bai, bihotzaren, etc.

5

Dezagun kanta gogotik :
O Jesus, zure ohoretan,
Bozak errepikatzetik

Ez beitez bara bazterretan.

Bai, bihotzaren, etc.

6

Dezagun kanta gogotik :

Oi! hau da gure zoriona,

Jesusek, zeru goratik

Galdetzen gaitu beregana.

Bai, bihotzaren, etc.

7

Dezagun kanta gogotik :

Deiha Jesus maitearenak .

Behartu, orai beretik,

Gure eskerrik handienak.

Bai, bihotzaren, etc.

8

Dezagun kanta gogotik :

Bethi zaitugu laudatuko;

Gauza guzien gainetik,

Jesus, zaitugu maitatuko.

Bai, bihotzaren erditik,

Dezagun kanta gogotik.

BIHOTZEKO GARBITASUNAZ

1

Dohainetan ederrenaz,

Hain baliosa dena

Egun nahi dut aiphatu,

Errepikaz kantatu.

O garbitasun maitea!

Plazer eztiz bethea,

Ochala! zu laudatzean,

Bazintut bihotzean.

2

Berthute preziatua,

Ez aski maitatua,

Lore guzien lorea,

Arantzerik gabea;

Bethi duzu distiatzen,

Barnea deskantsatzen;

Zu berekin zaituena

Datza dohatsueña.

3	O berthute maitea! Osoki bozkariatzen, Damuetan kontsola- [tzen: Berthute hunen indar- [ra Froga zak, mundutar- [ra; Bertze bat haiz aurkhi- [turen, Bihotza zaik bozturen.
4	6
Amodio mundukoa, Phozoin ondikozkoa, Phisuak eta dorpheak Dituk hire gatheak. Non zaitut, kastitatea, Bihotzaren bakea, O! berthute berezia, Zutan natza guzia.	Zuk duzu, kastitatea, Zeru goren gorthea Berregainki loriatzen, Saindu berriz bethe- [tzen: Zure bidez han sartze- [ko, Jaun onaz gozatzeko, Egonen naiz, hil artean, Nahi khartsu batean.
5	
Zuk nauzu, kastitatea,	

MUNDUARI ADIOS

1	Ni zertan naiz,
Helas!	Nola bizi naiz?
Zer hari naiz,	Hartua
Ni zertan naiz	Haren sareetan,
Mundu triste huntan?	Herstua
Helas!	Haren gatheetan,
Zer hari naiz,	Helas!

Heriora,
Jaincoa-gana?
Ni nola noha?

2

Lurra,
Zertaz naukak?
Hik plazerak
Darotzak hitzeman.

Lurra
Zertaz naukak?
Hik plazerak
Agindu dauztak.
Ordean,
Bethi gezurretan
Orotan
Hi haut nik atzeman

Lurra,
Tromperian,
Bekhatuan
Zertaz naukajan?

3

Bainan,
Noren bada
Hobena da,
Ahanzten bazaitut.

Bainan,
Noren bada
Hobena da,
Ni zehartzea?
Zure-obrak
Begietan ditut,
Hoin klarak,

Nola-ahantzten ditut
Bainan,

Ah! Zerua,
Bai, Jainkoa,
Ni naiz galdua.

4

Zure
Agintzetan,
Erranetan,
Zu zuzen aurkhitzen.

Zure
Agintzetan,
Erranetan
Bethi batetan.
Mundua
Bethi gezurrean,
Gogoa

Bethi eskasian;
Zure
Bai eginak,
Bai erranak,
Ene argiak.

5

Bethi
Herioa,
Bai hobia,
Jauna, bistan ditut.

Bethi
Herioa,
Bai hobia
Bethi-idekia;
Horier

Begiak hetsitut;
Horier
Gorraren egin dut
Bethi;
Oi zoroa!
Oi Jainkoa!
Ni norat noha?

6

Gero
Loria bat,
Oi, gozo bat,
(Hel nadila harat)!
Edo
Ifernu bat,
Erretze bat
Sekulakotzat;
Munduak
Ah! sura narama,
Jainkoak
Bere loriara :
Gero
Ah! mundua!
Ene arima!
Ni norat noha?

7

Hemen,
Mundutikan
Ez dut izan
Bethiko agintzarik;
Hemen,
Mundutikan
Ez dut izan,

Moment batean,
Bethikotz
Iraunen duenik,
Nihongotz
Ez da zutan baizik.

Hemen
Jauna, hula
Zerk narama
Oro galtzera?

8

Errak,
Ifernuan,
Tormentetan
Hagoen tristea,
Errak,
Ifernuan,
Tormentetan
Haizena sutan :
Erraguk
Zerk hauen hortara,
Eta guk

Hirrisku duguna :
Errak
Nola bada
Haizen horra,
Zori hortara?

9

Helas!
Erranen dut,
Bai aithor dut
Zorigaitza zer den!
Helas!

Erranen dut
Bai aithor dut
Nere falta dut;
Munduan
Zeren lakhet nuen :
Zeruan
Gosturik ez nuen :
Helas!
Posible da?
Bai, zoroa!
Huna galdua!

10

Helas!
Zer zorigaitz!
Zer jasan gaitz!
Hartzeko gogoan :
Helas!
Zer zorigaitz!
Zer jasan gaitz!
Gaitz guzien gaitz;
Ondikotz!
Su lamen erdian
Bethikotz
Erre beharrean.
Helas!
Ez orhoitzen,
Ez phentsatzen!
Oi! ni zer naizen!

11

Jauna,
Aithor dautzut,

Merezi dut,
Ah! puni nazazun;
Jauna!
Aithor dautzut,
Merezi dut;
Hutz bera egin dut.
Eskerrak
Zeren utzi nauzun,
Handiak
Oi, galdu ez nauzu :
Jauna,
Hitz darotzut,
Zinez dautzut;
Damun handi dut.

12

Lurra,
Atseginak,
Bai plazerak
Ditiat hastandu;
Lurra
Atseginak,
Bai plazerak,
Heurei eskeintzak
Zerua
Nahi diat heldu,
Bidea
Hartarakotz hartu;
Lurra,
Gurutzea,
Bai nekhea
Diat gostua.

SAN FRANTSSES XAVIEREKOARI

Errepika

Heskualduna zare san Frantses,
Gur odola da zu baithan,
Egizu dohain ta khar berez
Gaiten sustatuak izan.

1

Apostolu bat da agertu,
Berriz munduan : san Frantses,
Etsaiak berak tu harritu
Mirakuilu ta berthutez.

2

Aita ganik zen Jatsukoa,
Aitoren semetan handi;
Amaz zen Xavierekoa,
Horrela heskualdun garbi.

3

Parisen laster eskoletan
Zuten orok ezagutu,
Ezen hogoi ta bi urthetan
Zuten buruzagi hartu.

4

Bihotza urguluz bethea,
Munduaz lilluratua,
Amak irakatsi bidea
Zuen ordukotz galdua.

5

Jainkoak zioen igorri
Bere lagun Inazio
« Deusek, zuten erran elgarri,
Ez dik zerua balio? »

6

Jainkoaz Frantsesek ordutik
Du bihotza sustatua;
Nahi du hasi, aphezturik,
Debruarekin gudua.

7

Jakinik harren khar saindua,
Indioetarat joaiteco
Aita sainduak dio manua,
Zerk du orai baratuko?

8

Jesu-Kristo Jaunaz geroztik,
Ez dute ikhusi nihor
Haren botherea zuenik;
Hain zen Satanentzat gogor!

9

Hilak hobitik ditu phizten,
Zeru lur ta ifernuak
Hari dute obeditzen;
Hambat dauzka harrituak.

10

Milaka ditu Paganoak
Egun oroz bathaiatzen.
Gutieguy, dio, zaizkola,
Denak tu gutiziatzen.

11

Bainan huna jina orena;
Berrogoi ta bortz urthetan
Du hartzen zeruko korona,
Jesusentzat suspiretan.

12

Heskualdun maiteak zuerri

Zerutik dago san Frantses :
« Zuen arimak naiz egarri,
« Orhoit zuen aitzinekoez. »

13

Fede beraz aberastuak
Gaiten erabil sainduki,
Gaiten izan leial, suharrak,
Zeruratzeko segurki.

JOANES MAJORGA

DONIBANE GOAZIN SORTHUA

Errepika

Agur, agur gure martira (*bis*).

1	Eta san Fransesez, Dago jelostua.
Hemen zinen sorthu Badu hirur mende, Ordutik agertu Suhar Jainkoalde.	5 Hekiek bezala Mundua arnegatuz, Eiten da jesuista Zerua bilhatuz.
2	6
Zinen haur phartitu Zaragoz hirira. Han miretsi duzu Pilargo Birjina.	Orduan norka tchik Harrek duen lehia Phensatuz bakharrik Jenden salbatzia.
3	7
Omen handikoa Thindu eretaulez Bainan handiagoa Zure berthutez.	Brasile lurreko Jende paganoa, Zer konbertitzeko Duzun gutizia!
4	
San Inazioez, Gure Heskualduna,	

8

Berrogoi bazoazte
Untzi tchar batean,
Mundua hez uste
Zuen fede bizian.

9

Urak eta haizeak
Ditutzue alde,
Bainan ez debruak
Zuen adichkide.

10

Gizon heretiko,
Gizon krudelenak,
Heien hiltzeko,
Tuzte igorriak.

11

Betbetan untzia
Dute setiatzen,
Jendetze guzia
Gathibo ezartzen.

12

Bainan ez da aski
Azotatu ondoan,
Nahi tuzte ikhusi
Ithoak itsasoan.

13

Orduan Majorga,
Khurutzea hartuz,
Dohatsu hiltzea,
Hasten da oihuz :

14

Biba Jesu Kristo!

Biba gure Jauna!
Biba katoliko
Fedea duena!

15

Han berean dute
Zathitzen martira
Itsasoaz gorde
Ustez bere krima.

16

Zeruko justuak
Boski heldu dira,
Ekharriz koronak
Arimaren bilha.

17

Denak lorioski
Beren kantikekin
Zerurat doatzi
Urus Jesusekin.

18

Santa Teresak dio
Agertu zaizkola,
Dena bozkario
Hilta berehala.

19

Agur herritarra
Heskualdun garbia
Joanes Majorga,
Zu, gure gloria.

20

Izan zaite orai
Gure arartekoa
Beira bethi guri,

Sinheste osoa,

21

Zaharrak, gazteak

Lagunt gaitzatzu.

Zeruan bilduak

Oro eman zatzu.

ANDREDENA MARIA ARANTZEKOARI

AIREA : Uholde baten pare

Errepika

Eskualdun fededunak zahar eta gazte,
Amaren laudatzerat lehia zaitzte.

1

Goazen airoski denak Axulay aldera,
Hara mendi gainean Amaren kapera!
Guretzat othoitzean maiz han dago bera,
Goazen, goazen harekin othoitz egitera!

2

Eder da Mariaren zeruan sartzea,
Choragarri lurrean haren agertzea!
Lourden hautatu zuen tronutzat harpea,
Ainhoaren artean, aldiz arantzea.

3

Axulay bizkarrean, dohatsu larraina
Mariak bere oinez hunkitu duena!
Han jalgi zen, betbetan, urik garbiena,
Beilariari gaitza khen diozokena.

4

Mendiari lotzean beilari arrotza,
Jesus hilaz orhoituz has'azu othoitza,
Edanez mendi petik heldu den ur hotza,
Graziak sustaturen derautzu bihotza.

5

Ermittau batek zuen, mundua utzirik,
Kapera hau altchatu, jendek lagundurik.
Lekhu aiphatuenak ere kurriturik
Ezin hauta zezaken, ez, edarragorik:

6

Ezker mendi zorrotzak eskuin itsasoa,
Zeruraino dohakit airetan gogoa.
Hemen da, bai, ageri nor den, nor Jainkoa,
Haren aldean zoin den gizona flakoa.

7

Handi bada Jainkoa, haren Amak ere
Zeruan bai lurrean badauka bothere.
« Gure ihes lekhua, Birjina, zu zare :
« Hobendun gare, bainan zureak halere.

8

« Ama baten bihotzak zer duen jasaiten,
« Zeronek dakikezu!... Amatu baitzinen!...
« Jesus haurra galdurik nigarrez zinauden,
« Hura gabe, zu nola deskantsa zintazken!

9

« Amarik balinbada nigarrez dagonik
« Bere seme maitea munduan galdurik,
« Nigarrak chuka betza zutaz orhoiturik,
« Haurra zuk baitiozu zainduko hemendik.

10

Urrikal zaite, othoi, Ait'amen nigarrez,
Itsasoz bertzaldean dituzketen haurrez.
Artha izan ezazu haukien beharrez,
Bainan oroz gainetik gaichoan arimez.

11

Harmadarat gaztea delarik abian,

Aphur bat egon bedi hemen othoitzean :

- « Zutaz orhoituko da han ere agian,
- « Prestu egon dadintzat lagunen artean!

12

Gertakari tcharretan, zuk, laboraria,
Begizta zazu laster kapera churia;
Guziz balinbaduzu etchean eria,
Bihotzez errazkitzu bi *Agur Maria*.

13


- « Hor zaudenaz geroztik hoin gora jarria,
- « Ama, begira zazu Eskualdun herria.
- « Ainhoaren gainean zaude atzarria,
- « Dezaten froga denek zure sokorria.

14

- « Arantzeko Birjina, ez da zure haurrik
- « Bere salbamenduaz etsi dezakenik.
- « Ikusi behar duen jujearen gatik,
- « Zu berme, deskantsuan dohala mundutik.

15

- « Bai, hurbiltzen denean hiltzeko orena,
- « *Hel* eginen dautzugu denek, Ama ona.
- « Mihian erabiliz maiz zure izena,
- « Hilén gare bakean : Oi zer zoriona!



AURKHIBIDEA

P'aman

1.	Alegrantzietan	1
2.	Jesus onaren Bihotz	3
3.	Jesus Kurutzera	4
4.	Kurutzearen bidea	6
5.	Stabat <i>eskuaraz</i>	9
6.	Misionen ethortzeaz	12
7.	Zato, Izpiritua	14
8.	Heldu nautzu Jesus	15
9.	Izpiritu amultsua	16
10.	Zato, bekhatorea	16
11.	Hau da gure itsumendua	18
12.	Mundu zoro	19
13.	Ah! gizona	20
14.	Gizona	21
15.	Zer dire gure egunak	23
16.	Zuen heriotzeaz	24
17.	Aditzen da trompeta	25
18.	Nigar marrasketan	28
19.	Kreatura damnatua	29
20.	Oi! zoin den zorthe tristea	33
21.	Itzul hadi, itzul bekhatorea	37
22.	Othe da deus nesesario denik	38
23.	Zure kontra naiz altchatu	39
24.	Nola khausi deskantsurik	40
25.	Ala ni bainaiz dohakabea	43
26.	Ah! mundu enganagarria	44
27.	Ez da mundu huntan	45
28.	Zeren bilha zabiltza	48
29.	Huna Jauna ardi bat	50

30.	Utziz geroz bekhatua.....	51
31	Bekhatorosaren chede onak	52
32.	Azkenekotz	54
33.	Bizio meditentziaz	56
34.	Oi! zein diren dohatsuak	57
35	Kristau gazte maiteak	58
36	Purgatorioaz	61
37.	Jesus ona noizbeit.....	62
38	Barkha	63
39	Barkha, Jauna!.....	64
40.	Ama Birjinari kontsekrazionea.....	65
41.	Mariari othoitza.....	65
42.	Zerua zaritzat.....	67
43	Jainkoaren Ama	67
44.	O Maria, Ama maitea!.....	68
45.	Maiatza da.	70
46	Maria guziz saindua	71
47.	Lauda Maria.....	72
48.	Mariaren izena.....	74
49.	Oi Birjina (Reine des Cieux).....	75
50.	Salutatzen zaitugu	76
51.	Agur Aingeruen.....	77
52.	O Jainkoaren Ama	79
53.	Agur Ama	81
54.	O Maria igan zare	82
55.	Zeru lurrén Erregina	83
56.	Mariaren Bihotza.....	84
57.	Ene Ama da.....	85
58.	Maite zaitut.....	86
59.	Garbi zare	88
60.	Alegera dadila	89
61.	Oi Birjina.....	90

62.	Amodioz bihotza (Pitié, mon Dieu).	91
63.	Eskualdunek	92
64.	Agur Ama Birjina.	94
65.	Oraitik (En ce jour, ô bonne Madone),	95
66.	Goazen Mariaren (Zuri gaude)	96
67.	Amodio, ohore (Adéma)	97
68.	Uholde baten (Adéma).	99
69.	Agur izar (Nous voulons Dieu)	100
70.	Jesu Kristo dut.	101
71.	Lehen komunionekeo egunean	102
72.	Komunione aitzinean	103
73.	Komunione ondoan	103
74.	Altcha goazin bathaioko	104
75.	Zer zorion	106
76.	Huna bildots ezta.	108
77.	Zeru gorenetarik	109
78.	Nahi duzue jakin.	110
79.	Bizirik naiz bainan ez	110
80.	Huna Jesus bildots.	111
81.	Lauda zagun	112
82.	Oi! mirakuilu guziz.	113
83.	Oi! zer ogi dut ikhusten	114
84.	Zerutik jautsi zare.	115
85.	Sinhesten dut.	116
86.	Ohore amodio	117
87.	Jesus ona.	118
88.	Egungo trionfa.	119
89.	Mirakuilu.	120
90.	Zer zorion	121
91.	Oi zer zoriona (Qu'ils sont aimés)	122
92.	Kristauak, apha! zaitezte	123
93.	Adora dezagun	124

94.	Jesus ona (Mon bien-aimé)	125
95.	O Jesusen Bihotz samur	126
96.	Jesus onaren bihotz maitea	127
97.	Bihotz Jesus maitearena	128
98.	Jesusen bihotz maite	129
99.	O Jesusen (Cœur de Jésus)	129
100.	Bihotz khartsua	130
101.	Dugun bethi	131
102.	Zato, Jaun	132
103.	O! Eguberri	133
104.	Oi! Bethleem	134
105.	Atzar gaiten	136
106.	Gau erdi da (Minuit Chrétien)	138
107.	O Jesusen (Perçant les voiles de l'au- rore	140
108.	Gau erditan (Gloria in excelsis)	141
109.	Airerik ederrenetan	144
110.	Gaur sortu da	145
111.	Jesusen sortzea	146
112.	Jesusen Ama saindua	147
113.	Jesusen phiztearen gainean	149
114.	Kontzientziaren examina	150
115.	Eskerren bihurtzeko	152
116.	Bihotzeko garbitasunaz	153
117.	Munduari adios	154
118.	San Frantses Xavierekoari	158
119.	Joanes Majorga	160
120.	Andredena Maria arantzekoari	162

AURKHIBIDEA

Plaman

Aditzen da trompeta	25
Adora dezagun	124
Agur Aingeruen	77
Agur Ama	81
Agur Ama Birjina	94
Agur izar (Nous voulons Dieu)	100
Ah! gizona	29
Ah! mundu enganagarria	44
Airerik ederrenetan	144
Ala ni bainaiz dohakabea	43
Alegera dadila	89
Alegrantzietan	1
Altea goazin bathaioko	104
Ama Birjinari kontsekrazionea	65
Amodioz bihotza (Pitié, mon Dieu)	91
Amodio ohore (Adéma)	97
Andredena Maria arantzekoari	162
Atzar gaiten	136
Azkenekotz	54
Barkha	63
Barkha, Jauna!	64
Bekhatorosaren chede onak	52
Bihotz Jesus maitearena	128
Bihotz khartsua	130
Bihotzeko garbitasunaz	153
Bizio meditantsiaz	56
Bizirik naiz bainan ez	110
Dugun bethi	131
Egungo trionfa	119

Ene Ama da.....	85
Eskerren bihurtzeko.....	152
Eskualdunek.....	92
Ez da mundu huntan.....	45
Garbi zare.....	83
Gau erditan (Gloria in excelsis).....	141
Gau erdi da (Minuit Chrétien).....	138
Gaur sortu da.....	145
Gizona.....	21
Goazen Mariaren (Zuri gaude).....	96
Hau da gure itsumendua.....	18
Heldu nautzu Jesus.....	15
Huna bildots ezti.....	108
Huna Jauna ardi bat.....	50
Huna Jesus bildots.....	111
Itzul hadi, itzul bekhatorea.....	37
Izpiritu amultsua.....	16
Jainkoaren Ama.....	67
Jesu Kristo dut.....	101
Jesusen Ama saindua.....	117
Jesusen bihotz maite.....	129
Jesusen phiztearen gainean.....	149
Jesusen sortzea.....	146
Jesus Kurutzera.....	4
Jesus ona noizbeit.....	62
Jesus onaren Bihotz.....	3
Jesus ona.....	118
Jesus ona (Mon bien-aimé).....	125
Jesus onaren bihotz maitea.....	127
Joanes Majorga.....	1 0
Komunione aitzinean.....	103
Komunione ondoan.....	103

Kontzientziaren examina	150
Kreatura damnatua.	29
Kristauak, ahal zaitezte.....	123
Kristau gazte maiteak	58
Kurutzearen bidea	6
Lauda Maria.....	72
Lauda zagun ..	112
Lehen komunionekeo egunean	102
Maiatza da	70
Maite zaitut ...	86
Maria guziz saildua.....	71
Mariaren Bihotza.....	84
Mariaren izena	74
Mariari othoitza.....	65
Mirakuilu.....	120
Misionen ethortzeaz.....	12
Munduari adios	154
Mundu zoro ..	19
Nahi duzue jakin.....	110
Nigar marrasketan	28
Nola khausi deskantsurik	40
O! Eguberri	133
Ohore amodio	117
Oi! Bethleem	134
Oi Birjina (Reine des Cieux).....	75
Oi Birjina	90
Oi! mirakuilu guziz.....	113
Oi! zein diren dohatsuak.....	57
Oi! zer ogi dut ikhusten	114
Oi zer zoriona (Qu'ils sont aimés).....	122
Oi! zoin den zorthe tristea.....	33
O Jainkoaren Ama	79

O Jesusen Bihotz samur	126
O Jesusen (Cœur de Jésus)	129
O Jesusen (Perçant les voiles de l'aurore),	140
O Maria, Ama maitea!	63
O Maria igan zare	82
Oraitik (En ce jour, ô bonne Madone) . . .	95
Othe da deus nesesario denik	38
Purgatorioaz	61
Salutatzen zaitugu	76
San Frantses Xavierekoari	158
Sinhesten dut	116
Stabat <i>eskuaraz</i>	9
Uholde baten (Adéma)	99
Utziz geroz bekhatua	51
Zato, bekhatorea	16
Zato, Izpiritua	14
Zato, Jaun	132
Zer dire gure egunak	23
Zeren bilha zabilta	48
Zerua zaritzat	67
Zeru gorenetarik	109
Zeru lurren Erregina	83
Zerutik jautsi zare	115
Zer zorion	106
Zer zorion	121
Zuen heriotzeaz	24
Zure kontra naiz altchatu	39

San Josepi Othoitza

Zure ganat heldu gare gure hersturan, san Josep handia, eta zure Esposa guziz sainduaren sokhorria galdetu ondoan, konfidantzarekin galdetzen ere dugu zure laguntza. Birjina Jainkoaren Ama notha gabeari juntatu zaituen afeztioneaz eta Jesu-Kristo besarkatu duzun aita ordeko amodioaz, othoizten zaitugu beha diozozun Jesu-Kristok bere odol sakratuaz erosi duen primantzari, hura baita Eliza saildua, eta gure behar orduetan gure laguntzera hel zakizkigun zure bothere handiarekin.

O Jainkozko familiaren zaintzale guziz zahurra, zaint zazu Jesu-Kristoren arraza hautatua; Aita amodiotsua, begira gaitzatzu inganioen eta lizunkerien khutsutik. Hel zakizkigu gerizazaile boteretsua, eta zerutik lagun gaitzatzu ifernuko boteren kontra jasaiten dugun guduan. Eta bertze orduz Jesus Haurra heriotzeko menetik libratu duzun bezala, hala hala orai zure Eliza saildua libra zazu etsaien zelatelarik, eta gaitz guzietarik. Zure bethiko gerizaren azpian atchiki gaitzatzu, zure etsemplueri jarraikiz eta zure laguntzaz azkarturik, bizi gaiten sailduki, hil gaiten debotki, eta arnietzi dezagun zeruan bethiko dohatsutasuna. Halabiz.

(Leon XIII Aita Sailduak eman du zazpi urtheren eta zazpi garizumaren indulgentzia, othoitza hau erraiten den aldi guzientzat).

Othoitzak Andredena Mariari

(Memorare)

Orhoit zaite, ò Birjina Maria, guziz ona eta urrikalmendutsua! ez dela egundaino aditu ni hor zure ganat ihes egin duenik zure laguntza galdetu duenik, zure arartekotasuna bilhatu duenik, zutaz izan dela abandonatua. Nik ere fidantzia beraz gogoa sustatua, zureganat, ò Birjina, Birjinen Ama loriosa, laster egiten dut, zueganat heldu naiz; aihen minetan, ni bekhatorea, zure oinetarat erortzen naiz: ez dezazula, ò Berboaren Ama, ene othoitzak arbuja; bainan adi zazu fagorezki, eta entzua zazu, Halabiz.

(Ehun eg. ind.)

Egun guzietan Othoitzaren konfardiako membroek erran behar duten othoitzak

Jesusen Bihotz Sakratua, konsekratzen derautzut egun hau, eta eskaintzen Mariaren Bihotz guziz garbiaz, zehonek aldarearen gainean dituzun chedetarat.

Eskaintzen derautzut guziz hilabete hontan, othoitzaren konfardiak dituea chedetarat.

Jesusen Bihotz ezia egizu maitha zaitzadan gero eta gehiago. *(300 Eg. ind.)*

Jesusen Bihotz Sakratua, izan zaite nere amodioa. *(300 Eg. ind.)*

Mariaren Bihotz ezia, izan zaite nere salbamendua. *(300 Eg. ind.)*

Nere Jainkoa eta nere guzia. *(300 Eg. ind.)*

Exemplu miragarrienaz
Jesusec gaitu hertchatzen,
Amodioric kharxuenaz
Bere-gana gombidatzen.
Atzar, etz.

Amodioac du sustatzen;
Haren bihotza guretzat:
Has gaiten, has haren maitatzen;
Declara gaiten harentzat.
Atzar etz. (*Hastean bezala.*)



Zerc gaitu bada gibelatzen ?
 Hel gaiten , hel Jesus gana ;
 Bekhatoreen gatic da sortzen ,
 Saindutasun bera dena.

Atzar, etz.

Ikhus-garri mirestecoa !
 Oi ! hau da humiltasuna ,
 Zeru beraz goragocoa
 Manjateran da emana.

Atzar, etz.

Erregen Errege delaric ,
 Ez du nahi distiratu ,
 Ez du nahi palazioric ;
 Heja tchar bat du hautatu.

Atzar, etz.

Hotzaz ere da penatua
 Sasoinen manatzailea ;
 Guziez da gabetua
 Guzien creatzailea.

Atzar, etz.

Bi bestia ditu laguntzat ,
 Horra Jesusen zorthea :
 Lasto guti bat etzantzatzat !
 Oi ! hau gauzaren dorphea.

Atzar, etz.

batean eta bertzean izan ditutzun dis-
posizione sainduac, eta hec bezalacoac
izaiteco grazia galdegiten darotzugu
humiltasun handi batekin.

Zato, ene Jesus dibinoa, zato gure-
gana, eta bizi zaite gure balthan
mundu huntacotz eta eternitatecotz.

Halabiz.



NOELA.

ATZAR gaiten, atzar lotaric.
 Gau huntan da Jesus sortzen;
 Amodioac garhaituric,
 Gure gaiten da ethortzen. (*Berriz.*)

Gu zerurat nahiz altchatu,
 Jesus jausten da lurrerat;
 Heldu da gu nahiz salbatu,
 Gorphutz hilcor bat hartzerat,
 Atzar, etz.

Ala haren laudorioac
 Behar baitugu cantatu!
 Ala gure bozcarioac
 Behar baitu seinalatu!
 Atzar, etz.

Bekhatua, monstro tristea,
 Hoa hire leze belzerat;
 Ethorri duc Jesus maitea,
 Hire obren urratzerat.
 Atzar, etz.

